


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**LEHEN SOROSPENAK**

**GORPUTZ HEZKUNTZAN**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Alvarez Laka, Patricia

ZUZENDARIA: Martínez Abajo, Judit

**2021**



## **LABURPENA**

Gradu amaierako lan honetan Lehen sorospenen unitate didaktiko bat aurkeztu da Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako ikasgaiari lantzeko. Lehen sorospenen garrantzia azpimarratu nahi da eta gazteen artean naturaltasunez zabaltzea.

Bizkaian kokatuta dagoen Lezamako herri eskolan aurrera eramanez proiektu hau. Unitate didaktikoa bigarren ziklorako bideratuta dago, bigarren zikloko bosgarren mailan 14 ikasle dira eta seigarren mailan baita 14 ikasle. Gela bakoitzak 4 saio jasoko ditu lehen sorospenen inguruan.

Taldean arituz eta harremanak sustatuz Osakidetza ardatz gisa hartuta, lehen laguntzen protokoloak beldur gabe ezagutzea du helburu. Baita ere herriak dituen baliabideak esaterako desfibriladoreak herrian zehar kokatuta daudenak, eta Lezamako Udalak ematen dituen ikastaroak hauen erabilpena ezagutzeko.

*Hitz gakoak:* Lehen sorospenak; Gorputz hezkuntza; desfibriladorea; unitate didaktikoa.

## **RESUMEN**

Mediante este trabajo de fin de carrera se pretende ampliar los conocimientos de primeros auxilios entre los jóvenes con naturalidad. Para ello se ha creado una unidad didáctica dividida en 4 sesiones dirigidas a los alumnos de la escuela de Lezama de 5º y 6º de primaria en Educación Física.

La escuela de Lezama está ubicada en Bizkaia, en un pequeño pueblo de apenas 2500 habitantes. Tanto en 5º como en 6º curso son 14 alumnos.

Teniendo en cuenta como eje principal a Osakidetza, se pretende enseñar a los alumnos y alumnas los protocolos básicos para situaciones de urgencia. La forma de trabajar este contenido se basará en fomentar el trabajo en equipo y en mejorar las relaciones entre alumnos y alumnas. Por último, también se pretende que el centro conozca los recursos de Lezama, así como los desfibriladores ubicados en diferentes puntos del pueblo y los cursos que imparte el ayuntamiento para el manejo de los desfibriladores.

*Palabras clave:* Primeros auxilios, Educación Física; desfibrilador; unidad didáctica.

## AURKIBIDEA

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	4
1. MARKO TEORIKOA.....	5
1.1. LEHEN SOROSPENAK LEHEN HEZKUNTZAN .....	5
1.2. LEHEN SOROSPENAK GORPUTZ HEZKUNTZAN .....	9
1.3. LARRIALDI EGOEREN LANKETA.....	11
2. HELBURUAK .....	15
3. METODOA .....	16
3.1. TESTUINGURUA.....	16
3.2. PARTEHARTZAILEAK.....	17
3.3. PROZEDURA.....	17
3.4. TRESNAK .....	19
3.5. ESKU HARTZEAREN DISEINUA.....	20
CURRICULUMAREKIKO LOTURA .....	20
SAIOEN PROPOSAMENA.....	22
4. EMAITZAK .....	28
5. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK .....	31
6. BIBLIOGRAFIA.....	33
7. ERANSKINAK .....	37
1. Eranskina: KAHOOT! Galdetegia.....	37
2. Eranskina: Bihotz birikietako protokoloa.....	38
3. Eranskina: Gynkhanako txartelak .....	39
4. Eranskina: Altxorra.....	40
5. Eranskina: Gynkhanren errubrika .....	40
6. Eranskina: DESAren erabilpena .....	41
7. Eranskina: Narrazio etnografikoa.....	43

## **SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Ondoren aurkeztuko den lana, bizitzan zehar eman diren gertaerak eta geretara horiek zer pentsatzera eramane nauten ondorioak dira. Txikitatik kolpeak eta istripuak izaten ditugu eta nagusiak orokorrean beldurtu eta urduritu egiten dira egoera hauetan zelan jokatu ez jakiteagatik. Beldurrak eten egiten gaitu eta gehienbat kontrolatzen ez ditugun egoeratan. Hori dela eta txikitatik lehen sorospenak landu behar direla uste dut, alde batetik protokolo basikoak ezagutzeko eta bestetik normaltasunez edota beldurrik gabe egoera desberdinei aurre egiteko aukera izateko. Lehen sorospenen inguruan ditugun aurre-ideiak alde batera utzi eta gazteen artean zabaltzeko aukera aprobetxatu behar da. Izan ere, gazteak uste duguna baino asko gehiago dakite eta egiteko gai dira.

Sorosle titulua atera nuen eta hasieran nituen aurreiritziak lehen sorospenen inguruan guztiz aldatu ziren. Protokolo basikoak daude edonork egin ditzakeela eta bizitza bat salbatzeko gaitasuna ematen du. Horretaz gain Lezamako Udalak herrian zehar hiru desfibriladore kokatu ditu eta horietako bat eskolan bertan dago. Lezamako jende gehienak ez du hauen erabilpena ezagutzen eta Udalak ikastaroak irakasten ditu. Hori dela eta, osasuna eta jarduera fisikoaren alderdian, Heziketa Fisikoaren ikasgaietan zehar lehen sorospenen edukia landu behar da. Horretarako lan honetan zehar lehen sorospenen unitate didaktiko bat sortu egin da eta Lezamako eskolan aurrera eramane da.

# 1. MARKO TEORIKOA

## 1.1. LEHEN SOROSPENAK LEHEN HEZKUNTZAN

Lehen laguntzak edo lehen sorospenak istripuen biktimei edo bat-bateko gaixotasunei aplikatzen zaizkien teknika eta presazko neurri terapeutikoak bizitza salbatzeko dira (Tenorio et al., 2009).


Lehen sorospenak zuzenean lotuta daude osasunarekin; Osasunaren Mundu Erakundearen arabera (1948), osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera oso bat da, baina osasunaren kontzeptuan sar daitezke subjektuak baliabide pertsonalak erabiltzeko eta bizitzako zailtasunei eta arazoei aurre egiteko duen gaitasuna. Zentzu horretan, istripu bat gertatu ondoren, lehen sorospenak osasuna mantentzeko baliabide pertsonal horien zatitza hartzen da.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, 1957) honela definitzen du istripua: Aurrez pentsatu gabeko gertaera bat da, eta haren emaitza gorputzeko kalte identifikagarria da. Istripu bat gertatzen den unean, arreta egokia eta eraginkorra eman behar da, bai gertatzen den lekuan, bai larrialdi-zerbitzuetara eramaten denean; izan ere, osasun-kalteak, baliaezintasunagatiko konplikazioak, tratamendu-kostuak eta heriotza ere murrizteko aukera ematen du.

Euskaraz BBB deritza, hau da, "bihotz-biriketako berpizteko oinarriko praktikak". Euskal Herrian 2012an egindako ikerketa batean Osakidetzako laguntzarekin atera zen ondorioa izan zen, erantzuteko tarteak murriztera eta herritarrek oinarriko bizkortzeari irakastera bideratutako estrategiak sortu behar direla (Ballesteros et al., 2013). Espainia mailan, ospitalez kanpoko 24.500 BBB baino gehiago kalkulatu dira, batez beste BBB bat 20 minuturo; horietatik % 75 etxean eta gainerako espazio publikoetan gertatzen dira (Fernández, 2015).

Gutxi gorabehera, bihotz biriketako geldialdian dagoen pertsona bat suspertzeko probabilitatea kalkulatu da %10 txikiagoa dela pasatzen den minutu bakoitzeko; beraz, 10 minutura, erreamimazio-aukerak zero dira (Carrillo, 2019). Drinkerrekin bihotz-biriketako geldialdi baten ondoren bizirauteko duen aukerari buruz egindako aurkikuntzak laburbiltzen dituen grafikoa:

1. Irudia: *Drinker kurba*



Iturria: Carrillo, 2019

Horretaz gain, BBB gertatzen diren kasuentzat Desfibriladoreak erabiltzen dira. Kanpoko desfibriladore automatikoa (KDA) ospitaleetatik kanpo gertatzen diren bihotz-gelditzeetarako diseinatuta dago; izan ere, erabiltzeko erraza da, mediku ez diren langileek modu seguruan eta eraginkorrean erabil ditzakete desfibriladoreak urrats bakoitzean adierazten dituen erabilera-jarraibideak.


Gero eta desfibriladore gehiago instalatzen dira, izan ere 9/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, kanpo-desfibriladore automatiko eta erdiautomatikoen ezarpena eta erabilera arautzen dituen, eta haiek osasun-esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzea beharrezkoa dela xedatzen duena. Hurrengo guneetan desfibriladorea jartzea beharrezkoa da:

- a) Merkataritza-establezimendu (indibidual eta kolektibo) handietan.
- b) Garraio-instalazio hauetan: aireportuetan eta merkataritza-portuetan. 50.000tik gora biztanle dauzkaten herrietako autobus- edo tren-geltokietan eta egunean 2.000 pertsona edo hortik gora pertsona hartzen dituzten metro-, tren- edo autobus-geltokietan.
- c) 700 pertsonatik gorako edukiera baimendua daukaten establezimendu publikoetan, instalazioetan, ikuskizunetan eta jolas-jardueretan.
- d) 2.000 pertsonako edo hortik gorako edukiera duten hezkuntza-zentroetan.

Lezamaren kasuan hiru desfibriladore kokatu dira herrian zehar. Bat udaletxearen atarian, beste bat Eskola Publikoan eta hirugarrena Kurtzeko ermitan.

Hirurak ere, kanpokaldean jarri dira, edonork eskura izan ditzan ezbeharririk gertatu ezker. Desfibrilagailu erdiautomatiko hauek Lezaman kokatu dira Txorierriko Mankomunitateak kontratatu duen 22 desfibrilagailuren horniketaren barruan. Izan ere, Mankomunitatea osatzen duten sei herrietan jarriko dira. Kontratutakoak barne hartzen du bai desfibrilagailuen mantenua prebentzioari dagokionean, eta baita matxuren konponketa, gailuen erabilera egokia bermatzeko asmoz (Lezamako Udala, 2012).

## 2.Irudia. Lezamako Udalen web orrialdea



Iturria: Lezamako Udala, (2012)

Kanpo Desfibriladore Automatizatuaren Euskal Erregistroaren arabera, aurrerapen teknologikoei esker, osasun-langileak ez direnek ere desfibrilazioa modu erraz eta seguruan ezartzea ahalbidetzen duten gailuak garatu dira, kanpo desfibriladore automatizatuak (KDA) izenekoak. Gailu konputarizatu konplexuak, fidagarriak eta operatzeko errazak dira; horri esker, ia edozein pertsona saia daiteke desfibriladorea erabiltzen (Vasco, 2006). KDAk orientazioa eta laguntza emango du bizi-larrialdiko egoeretan.

Lehen laguntzako prestakuntzak duen garrantziaren arrazoia bikoitza da. Alde batetik, lehen laguntzako irakasleen prestakuntza beharrezkoa da, gizartea gai horretan heztea bilatzen bada; izan ere, eskolatzeta nahitaezkoa da Espainian, eta ikasgelako programazioetan sartzen bada, urte batzuetan biztanleriaren zati handi batera helduko da. Bestetik, beharrezkoa da eskolan non haurrak denbora gehiena ematen duten larrialdi-egoera bati aurre egiteko (Carrillo, 2019).



Haurren istripu guztien % 15 ikastetxeetan gertatzen dira. Haurrek ikastetxean ematen dute denboraren zati handi bat, gainera, jarduerak egiten dituzte, hala nola, jolas eta kirol jakin batzuk, ohikoak ez diren beste arrisku batzuk dakartzatenak (Estrada, 2008).

Hezkuntza-espazioetan, ekintza horiek irakasleei eta ikaskideei eurei dagozkie, beraz, jakintza-arlo horrek arreta handiagoa eskatzen du, eskola-eremuan susta dadin (Carrillo, 2019). Lehen sorospenak eskolan, balioetan heztea sustatzen du, hala nola, bizikidetzak, osasunerako hezkuntza, giza eskubideak eta herritartasunerako hezkuntza (Alquézar, 2010).

Protokoloek hitz egiten denean, protokolo desberdinak daude. Osakidetzak ikastetxeetarako osasun gida bat sortu du eskolako larrialdiei aurre egiteko. Halaber, erabilgarria da osasun larrialdietan egon daitekeen edonorentzat (Eusko Jaularitza, 2015). Osakidetzak protokoloen barnean teknika desberdinak azaltzen ditu larrialdi egoera ugarietarako aurre egiteko. Horien artean BBB, Heimlich maniobra eta segurtasuneko albo jarrera teknika.

Bihotz-biriketako berpiztearen (BBB) teknikak ezagutzeak bizitzak nola salba daitezkeen jakitea esan nahi du. BBB ikastea erraza da, eta ordu gutxi batzuk bakarrik behar dira (García et al., 2008). Edonork, edonon has ditzake bihotza berpizteko prozedurak, behar den guztia bi esku dira.

Heimlich-en maniobra diafragmaren azpian egiten diren konpresio abdominalak dira. Janari-zati batekin edo objektu arraro batekin ezdarriko duen pertsona batentzat gomendatzen da. Heimlich-en maniobraren arabera, pertsona bat arnasbideak blokeatzeagatik ezdarria tratatzen ari denean baino ez da erabiltzen. Norbaitek hitz egin, ez tul egin edo arnasa hartu ezin duenean gertatzen da ezdarria tratatzea. Arnasbideak buxatzeak konortea galtzea eta heriotza ekar ditzake. Heimlich-en maniobra aplikatzen denean, kontuz ibili saihetsak edo barne-organoak ez hondatzeko indar handirik ez erabiltzeko. Heimlichen maniobra da gaur egun Asociación Americana del Corazón (American Heart Association) elkarteak eta AEBetako Gurutze Gorriak (American Red Cross) helduentzat gomendatutako arnasbideak garbitzeko metodo bakarra (Health Encyclopedia, 2021).

Segurtasuneko albo jarrera teknika lehen laguntzetarako maniobra bat da, edonork egin dezakeena, osasunari buruzko ezagutzak izan ala ez, eta bere helburua arazo handiagoak saihestea da, itotzeagatik heriotza ere ekar lezaketenak. Maniobra horren bidez, arnasketa modu seguruan mantendu nahi da. Teknika hori aurrera

eramateko hainbat pausu jarraitu behar dira, buruak biratuta egoteko eta arnasketa zuzena izan dadin (Monsieurs et al., 2015).

Larrialdi egoera askotan biztanleriak biziraupenerako katearen lehen urratsak ematen ditu. Lehen urrats horiek kaltetuaren biziraupenean eragina izaten dute, arreta espezializatua eraginkorra izaten da; lehen sorospenak jardutea ia ezinbestekoa da Drinker kurbak erakusten duen bezala. Erreanimazio-maniobrak egiten hasteko denbora bihotz birikietako geldialdia jasan duen pertsonen biziraupen-aukerek lotzen da (Bravo eta Moyano, 2013).

Lehen Hezkuntzako ikasleek maniobra ikasi, erreproduzitu eta ezagutza teorikoak atxikitzen dute (López-Unanua et al., 2008). Gazteek erraz ikasten dute, oso motibagarriak dira, ezagutzak eta trebetasunak mantentzen dituzte, gizarte-presiotik salbuetsita daude. Batzuetan, "Heroiak", maiz imitatzen dituztenak (García et al., 2008).

3. Irudia. Umeak heroiak dira.



Menú **El Confidencial** Iniciar sesión Su

Sucesos ■ Una niña de siete años salva la vida de su madre tras llamar al 112

Guardia Civil Azúcar Sevilla

*El redactor recomienda*

 "Mi mamá está mala, ¿puedes venir?" Un niño de 4 años salva la vida de su madre  
EC/Agencias

 Una niña canaria de 11 años salva a su madre de morir atragantada  
El Confidencial

 Un niño de 11 años salva a su madre tras sufrir un desvanecimiento y llamar al 112  
EFE

Iturria: El confidencial, 2021.

## 1.2. LEHEN SOROSPENAK GORPUTZ HEZKUNTZAN

Gorputz Hezkuntzaren garrantzia hezkuntza arloan aztertuz, nahitaezko arlotzat hartzen da. Ikasleen hezkuntza prestakuntza integralerako funtsezko diziplina gisa eratu da, batez ere adin goiztiarrean ezartzen bada. Izan ere, Lehen Hezkuntzako haurrengan ezinbesteko trebetasun motorrak, kognitiboak eta afektiboak garatzeko

aukera ematen du, eguneroko bizitzarako eta bizi-proiekturako prozesu gisa (Tinning, 1996).

Gorputz Hezkuntzaren bidez, umeak bere berezkotasuna adierazten du, bere sormena sustatzen du eta, batez ere, bere burua eta besteak ezagutu, errespetatu eta baloratzeko aukera ematen du. Arrazoi horregatik, ezinbestekoa da jardueren aniztasuna eta bizipena, izan ere, emozioak ikaskuntzen motore edo galga dira; ikaskuntzak haien inguruan eraikitzen dira (Pellicer, 2015). Pertsona baten egoera emozionalak mundua hautemateko modua zehazten du (Gallardo, 2007).

Gorputz hezkuntzaren esparruan (Sánchez, 1997) zenbait onurak ditu gorputzean maila biologikoan eta norberaren maila kognitiboan zein emozionalean sor ditzake eta normalean, erraz ikusten ez direnak izaten dira, horien artean: interakzio soziala areagotzen du, norberaren gorputza eta aukerak ezagutzea errazten du eta gaitasun kognitiboa hobetzen du ariketa fisikoa eginez neuronen sorrera zein horien arteko lotura aktibatzen da ikaskuntzaz, memoriaz eta arretaz arduratzen den garunaren eremuan. Beste era batean esanda, Gorputz Hezkuntzak (Mendoza et al., 1994) ikasleen potentzialtasun guztiak garatzen lagundu behar du dimentsio psikologiko, biologiko eta sozialean, garapen integrala lortzeko asmoz.

Oinarrizko Hezkuntzak, ezagutzaren beste diziplina batzuek bezala, mugimenduaren bidez, ikaslearen prestakuntza integralaren prozesuarekin ere laguntzen du, onura pertsonal zein sozialerako eta norberaren kultura aberaste aldera. Gorputz hezkuntza prozesu pedagogiko eta iraunkor gisa egituratzen bada, integrazioa eta gizarteratzea ahalbidetzen dioten oinarri sendoak dira. Adieraz daiteke Gorputz Hezkuntzak sozializatzen laguntzen duela. Halaber, sozializazioa ulertu dezakegu ekintza ludiko batean moduan, non pertsona ezberdinak (ikasleak kasu honetan) elkarrekintzan aritzen diren helburu komun batzuk betetzeko (Antolín et al., 2012).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Heziberri 2020 Planaren proiektuaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen zuen Dekretua argitaratu zuen. Dekretu horretan sartu zen kompetentzia motorra, eta honela definitzen da (236/2015eko Dekretua):

Norberarekin eta besteekin, bai inguru fisiko eta kulturalarekin lotuta dauden esparru motorreko egoerei aurre egitea modu autonomoan, kritikoan, sortzailean eta espresiboan. Horretarako, bada, jokaera motorra garatzen lagunduko duten ezagutzak, prozedurak eta jarrerak integratu beharko dira,

bizi-estilo osasuntsu baten bitartez ongizate integrala lortzen lagunduko duten jarduera fisiko eta kirol jarduerak praktikatzeko ohiturak hartuz (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Curriculumean esaten den bezala ongizateaz gain beste kontzeptu batzuk bermatzeko ikasgaia da. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, haurren jarduera fisikoak osasun fisikoa (Sánchez, 1996), emozionala eta mentala errazten du, gizakiaren hiru alderdi horiei lotutako gaixotasun ugari prebenituz. Heziketa fisikoen onuraz gain, aztertu behar da baita ez egitearen kalteak, izan ere, onura kognitiboak bizitzako lehen urteetan jarduera fisikoa egiten denean bakarrik gertatzen dira (Ordovás, 2004).

Curriculumean sakonduz, norberaren eta besteen ongizatearekin zerikusia duten egoerei modu autonomoan, kritikoa, sortzailean eta adierazpenean aurre egitea. Elikadura, higiena eta norberaren osasunean jartzen da fokua Heziketa Fisikoan. Hezkuntzaren oinarri garrantzitsuetako bat ikasleak gizartean hezte eta bizitzaren aurrean egoera desberdinei erantzuteko gaitasuna sustatzea du helburu. Hain zuzen ere, 236/2015eko Dekretuan Jarduera fisikoa eta osasunaosatzen duen 4. eduki multzoarekin bat egiten duen multzoa.

Lehen sorospenak zuzenean lotuta daude osasunarekin; osasunaren kontzeptuan sar daiteke subjektuak baliabide pertsonalak erabiltzeko eta bizitzako zailtasunei eta arazoei aurre egiteko duen gaitasuna. Zentzu horretan, istripu bat gertatu ondoren, lehen sorospenak osasuna mantentzeko baliabide pertsonal horien zatitza hartu behar da.

### **1.3. LARRIALDI EGOEREN LANKETA**

Alde batetik, zailtasun egoerei aurre egiteko kasu azterketa ikerketa metodoa erabilgarria da lehen sorospenen edukia lantzeko. Ikaslearentzat arazo simulatuak edo errealak dituzten kasuei aurre eginez ikasten baita (Barrachina, 2017). Ikaskuntza honetan ikasleak animatu egiten dira galderak egitera eta bere erantzunak ematera, bai eta adibide praktikoan edo esperientzien printzipioak ondorioztatzen. Ikasleak etengabe parte hartzea eskatzen duen metodo aktiboa da (Andreu et al., 2004).

Kasu azterketa ikerketa metodoa gainerako ikerketa metodoetatik bereizten duten ezaugarriak (Bujan, 2001):

- Errealitatea: Ez da mugatzen errealitateari buruzko informazioa ematera, kontuan hartzen baiditu errealitate hori osatzen duten arazoak, paradoxak, gatazka egoerak eta egiazko gertaerak.

- Negoziazioa: Egiten aritu ahala, negoziatu egin behar da lortutako informazioa, hau da, erabaki behar da datuak nola erabili.

- Parte hartzea: kasuan parte hartzen duten kide guztiak jotzen dira parte hartzailetzat, ikertzailea bera ere; izan ere, prozesuaren une guztien jarraipena egitean, bera ere partaide bihurtzen da.

- Eskuragarria: Ulerterraza izan behar da, hau da, alor horretan aditua ez denak ere arazorik gabe ulertzeko modukoa. Argia izan behar da bai ikertzailearentzat bai parte-hartzaileentzat.

Jolasa eta metodologia kooperatiboak ezinbesteko tresnak dira hezkuntza fisikorako, beste jarduera batzuetan gertatzen ez diren funtsezko bi alderdi biltzen baitituzte: jolas partekatuaren alderdi ludikoaz gozatzea, eta ideiak partekatzea eta helburu komun bat lortzeko ahaleginak batzea (Antón, 2011).

Jolas edo jolas-jarduera orotan ezartzen den dinamika, neurri batean, helburuaren egituraren mende dago jokoaren planteamenduan. Hiru jolas mota bereiz ditzakegu (Jonhson,1981):

- Xede-egitura indibidualizatua duten jokoak. Jokoaren helburuak gainerakoen helburuekin lotuta daude, eta ez dago elkarreragirik edo harremanik besteen ekitearekin edo porrotarekin.

- Lehiakidetzako egitura duten jolasak. Bateriaezintasuna dakarte parte-hartzaile baten edo batzuen eta besteen helburuen artean.

- Lankidetzarako helburu-egitura duten jolasak. Jokoak parte-hartzaile bakoitzarentzat ezartzen dituen helburuak gainerakoenekin lotuta daude, beraz, bakoitzak bere helburua lortzen du, soilik gainerako parte-hartzaileek berea lortzen badute.

Jolas kooperatiboak printzipio sozioafektiboak eta ikaskuntza-printzipioak betetzen ditu Gorputz Hezkuntzako eragilea, premia espezifikoak dituzten ikasleekin (Antón, 2011):

- Aukera ematen du ikasle horiei taldearen barruan arreta emateko (integrazioa).
- Laguntza- eta erantzukizun harremanak orientatzen ditu, eta ez

Gehiegizko babesa (normalizazioa).

- Besteekiko interakzioan gizabanakoa errespetatzen du (autonomia).
- Berdinen arteko komunikazioa indartzen du (harremana).
- Hainbat ekintza sistematikoki aztertzeko eta errepikatzeko aukera ematen du.

Motorrak (garapen motorra).

- Trebetasunak berrietan estrapolatzeko ingurune egokia sortzen du.

Testuinguruak (transferentzia).


- Ikaskuntza bultzatzen du prestakuntza pertsonalaren hainbat arlotan (Balioaniztasuna).

Beste aldetik, parte hartzea eta lankidetzaren ikuspuntutik jarraituz, lehen sorospenak lantzeko erronka kooperatiboak egokiak dira. Erroka kooperatiboak dira ekintzak non taldekideak haien artean laguntza ematen eta jasotzen duten helburu komun bat lortzeko (Garairgordobil, 2002). Beraz, ikaskuntza-egoerak dira, non lankidetzaren beharrezkoa den gainditzeko (Velázquez, 2005).

Erronka fisiko kooperatiboetan funtsezko hiru osagai bereizten dira (Fernandez-Rio eta Velázquez, 2005):

- Motorra, exekuzio hori arrakastatsua izan dadin beharrezkoak diren abilezi, gaitasun fisikoak eta trebetasunak.
- Kontzeptuala, taldeak konpondu behar duen arazoari eta bidetik egon daitezkeen arazoak lortzeko erantzunak.
- Afektiboa eta harremanezkoa, eginkizunak faktore interpertsonal eta intrapertsonal duten eragina, zereginaren arrakastan edo porrotean eragina dutenak.

4. Irudia. Erronka kooperatiboen osagaiak



Iturria: Fernandez-Rio eta Velázquez, (2005)

Erronka kooperatibo mota desberdinak daude (Fernandez-Rio eta Velázquez, 2005), alde batetik taldekide kopuruaren arabera, hau da, talde txikian (5-10 pertsona bitarteko taldeak) edo talde handian egiten den erronka (klase osoa taldearen parte da).

Lan egiteko erronka hauen bitartez esan daiteke (Fernandez-Rio, 2005) abantaila handiak ematen dituela, esaterako:

- Gaitasun desberdineko ikasleen lana ahalbidetzen dute berdintasun-ingurune batean.
- Sormena eta alboko pentsamendua garatzen dituzte.
- Ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista bihurtzen dituzte, ikasleek lorpenak hautematen dituzte, irakasleak ikaskuntza soilik bideratzen du.
- Ikasleek banaka lan egiteko duten autonomia handitzen dute, eta, batez ere, taldeka.
- Jarduera ikasleengan kontzentratzen denez, irakasleak ebaluazioa egitea eta benetan prestakuntza-ebaluazioa egitea, irakasteko eta ikasteko prozesuan zentratzen da.
- Talde-lana, modu kooperatiboan garatua, oso garrantzitsua dela hautematen laguntzen dute, indibidualtasunen batura baino handiagoa.

Erronka kooperatiboan barruan, azken osagai honek inklusioarekin lotura estua du. UNESCOk definitzen du (2019) inklusioa ikasle guztien premien aniztasuna identifikatzeko eta erantzuteko prozesu gisa ikusten da, ikaskuntzan, kulturetan eta komunitateetan parte-hartze handiagoa izatearen bidez, eta hezkuntzan bazterketa murriztuz. Beraz, erronka kooperatiboak inklusioa bermatzeko baliabide egokia da, baita harremanak sustatzeko.

## 2. HELBURUAK

- Lehen sorospenen bidez osasuna eta jarduera fisikoaren inguruko unitate didaktiko bat diseinatzea eta aurrera eramatea, lehen hezkuntzako ikasleekin.
- Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak larrialdi egoera batean jarraitu beharreko protokoloak ezagutzea, erantzun egokia emateko.
- Larrialdi egoera desberdinak proposatzea kasu azterketen bitartez, horiei aurre egiteko protokoloak ezagutzea.
- Ikasleek bere eguneroko bizitzan gertatu daitekeen egoera batean laguntza emateko baliabideak izatea, landu diren kontzeptuen bidez.
- Kasu azterketen bitartez, larrialdi egoera desberdinei aurre egiteko ezagutza zabaltzea gazteen artean eta praktikara eramatea.
- Erronka kooperatiboen bitartez ikasleen arteko talde lana sustatzea helburu komun bat lortzeko eta elkarren arteko harremanak hobetzeko.



### 3. METODOA

#### 3.1. TESTUINGURUA

Lezamako Herri Ikastetxe publikoa D eredukoa da eta berta Haur eta Lehen hezkuntza ematen da. Garaioltza 86 auzoan kokatuta dago, hau da, Lezamako herriaren erdialdean. Lezama 2500 biztanle inguru ditu, hori dela eta, eskolan lerro bakarra dago, klase bakoitzean ez dira 20 ikasleetara heltzen.

Ikastetxe publiko honen helburu nagusia ikasleek euren gaitasunen erabateko garapena lortzea da. Bide horretan, euren erritmo eta ezberdintasunak errespetatzen dira eta konfidantza eta hurbiltasuna dira eguneroko lanaren oinarri. Ikastetxearen nortasuna, ikastalde txikiak eta malguak izatea, irakaskuntza pertsonalizatua, ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa, metodo berriztatzaileak, ikas komunitatearen konpromisoan errotua eta familien inplikazioan oinarritzen da.

Eskolak dituen proiektuak hurrengoak dira:

- Bizikasi: eskola jazarpenari aire egiteko eta elkarbizitza positiboa sustatzeko.
- Nolega programa: euskararen erabilpenaren sustapena
- Sare hezkuntza: irakatsi eta ikasteko prozesuetan IKTak integratzea
- Zientzia ekimenak
- Ortua
- Jai bereziak: euskararen eguna, olentzero, Agate deuna, aratusteak, udaberriko jaiak, korrika.
- Hezkidetza proiektua: berdintasunean hezteko eta genero indarkeria saihesteko proiektua.
- Igeriketa: HH 5tik LH 6ra

Eremua eta materialaren inguruan, Lezamako eskola eraikuntza bakarra du klaseak emateko, honen inguruan baditu aurreko patioa eta atzeko patio bat. Aurreko patioan sarrera dago aterpea duena, espaloi batzuekin alboko patioa bereizten da non futbol zelai bat eta saski baloiko bi gurutzatuta dauden. Horren ostean aterpea duen kolunpioen eremua dago.

Beheko patioa eta goiko patioa bereizten da gaur egun gimnasioa den eraikinarekin. Gimnasioa ez da oso handia baina gelako ikasle kopurua txikia denez klase bat egoteko leku aproposa da.

Goiko patioan, berez herriko kiroldegia dena, osatuta dago belar artifizialeko futbol zelai batez, frontoi batez eta hirugarren inguru bat non baina orain hesis inguratuta dagoen mini futbol-saski zelaia eta mahaiekin. Mahai horietan badago marraztuta xakeko tableroa eta pinponera jolasteko mahaiaik.

### **3.2. PARTEHARTZAILEAK**

Lehen hezkuntzako 5. mailan 14 ikasle dira, haien artean 4 neska eta 10 mutil. 6.mailan baita 14 ikasle dira baina kasu honetan 6 neska eta 8 mutil dira. Gela honetan, nesken artean badago ikasle bat gurpildun aulkian dagoena mugikortasunik ez duena, baina COVID19 dela eta oso gutxitan etorri da eskolara azkenaldian, ezta esku hartzean zehar.

Ikasle gehienak Lezamakoak dira familiako generazio asko bizi izan dira herrian. Badaude salbuespen gutxi batzuk, bertakoak ez diren ikasleenak. Izan ere, Lezaman indarkeria jasan duten emakumeen etxe bat dago eta haien seme alabak bertako eskolara joaten dira.

Euskara herrian indar handia du eta eskolan asko bultzatu egiten da euskararen erabilera baina ez da ikasleen artean osotasunean erabiltzen. Ikasle gehienek gurasoak eta gehienbat aitona amamek euskaraz egiten dute ikasleekin, hala ere, ikasleen artean daudenean gaztelania nabarmendu egiten da.

### **3.3. PROZEDURA**

Unitate didaktikoa martxan jartzeko, lehenengo eta behin Lezamako eskolarekin kontaktuan jarri nintzen urrian, izan ere, bertako ikasle ohia naiz. EHU/UPVko ikaslea naizela, Gorputz Hezkuntzako minorrekoa eta nire Gradu Amaierako Lanerako unitate didaktiko bat sortu eta aurrera eraman nahi nuela lehen sorospenen inguruan azaldu nien. Gorputz hezkuntzako irakasleak mezuari erantzun zidan eta irrikitan zegoen nire esku hartzea bertan egiteko plazaratu zidan., Lezamako eskolako gorputz hezkuntzako irakaslearekin kontaktuan jarraitu nintzen nuen unitate didaktikoa antolatzeke eta bere ikuspuntua ere kontuan izan nuen. Covid 19 egoera zela eta zer izan behar nuen kontuan klaseak aurrera eramateko, bai materiala bai

kontaktuaren inguruan ikasleen artean. Kontuan izanda gabonak arte klaseak nituela Gasteizen bai presentzialak bai telematikoak (aste bat bakoitza) ezin izan nuen lehenago esku hartzea egin. Urtarrilean ez nituen klaseak baina bai azterketak, hala ere, antolatu nintzen gabonetatik bueltan esku hartzea aurrera eramateko Lezamako eskolan.

5.mailakoek astelehenetan dituzte Gorputz hezkuntzako 2 saio jarraian eta 6. mailakoek aldiz, ostegunetan. Saio bakoitzak 45 minutu iraun egiten dute. Beraz, nire esku hartzea 4 saio prestatu eta 4 saio horiek 5. eta 6. mailan ematea izango da.

Lezamako eskolarekin izandako kontaktua esku hartzea antolatzeko:

<b>Data</b>	<b>Eginkizuna</b>
<b>2020ko Urriak 7</b>	Email bidez Lezamako eskolarekin kontaktuan jarri eta nire proposamena aurkeztu.
<b>2020ko Urriak 9</b>	Lezamako eskola nire proposamenean interesa plazatu eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea nirekin harremanetan jarri.
<b>2020ko Urriak 13</b>	Unitate didaktikoaren proposamena bidali Gorputz Hezkuntzako irakasleari.
<b>2020ko Urriak 24</b>	Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin Edukiak eta zein mailarako bideratuko den antolatu eta adostu.
<b>2020ko Abenduak 27</b>	Saio kopurua, materiala eta protokoloen inguruan hitz egin ekintzak birmoldatu behar baziren (Covid egoera dela eta).
<b>2021eko Urtarrilak 7</b>	Baiezkoa jaso eta ordutegia antolatu hurrengo astean hasteko.

Esku hartzearen kronograma:

<b>Maila</b>	<b>Data</b>	<b>Saioak</b>	<b>Ordua</b>
LH 5	2021-01-11	1-2	14.30-16:00
	2021-01-18	3-4	14.30-16:00
LH 6	2021-01-14	1-2	14.30-16:00

### 3.4. TRESNAK

Unitate didaktikoaren aurrera eramateko erabili diren tresnak prozesuan zehar izan dira:

IKT-ak ikasleen hasierako ebaluazioa egiteko eta beraien maila jakiteko, Kahoot! kuestionarioaren bitartez. Kahoot!-a baliabide teknologiko bat da non galdeketa dinamikoak egiten dira plataformaren bitartez. Ikasle bakoitzak dauka ordenagailu bat non galderak erantzuten dituzten eta gelan pantaila handian galderak azaltzen dira. Galdetegia 13 galderaz osatuta dago erantzun mota desberdinekin. Alde batetik gaiari sarrera emateko eta haien interesak pizteko eta bestetik haien ezagutzak baloratzeko eta hasierako ebaluazioa egiteko (Ikusi 1.eranskina).

Amaierako ebaluaketan ikasleek edukiak barneratu dituzten ala ez baloratzeko errubrika bat egin da. Ebaluatzeko Gynkhana errubrika sortu da eta froga bakoitza erronka kooperatibo bat da. Erronka bakoitza landu den edukiaren atal bati erreferentzia egiten dio, beraz, erronka bakoitzean edukiaren atal bat ebaluatuko da.

	<b>LEHEN SOROSPENEN GYNKHANA</b>	<b>Gai</b>	<b>Erdizka</b>	<b>Ez gai</b>	<b>Oharrak</b>
<b>1</b>	Istripu batean laguntza emateko gai da.				
<b>2</b>	Babestu, Abisatu eta Sorotsi protokoloa ezagutzen eta martxan jartzeko gai da.				
<b>3</b>	Larrialdi egoera batean larrialdi zerbitzuetara laguntza eskatzeko gai da				
<b>4</b>	Segurtasuneko albo-jarreraren teknika egiteko gai da.				
<b>5</b>	Bihotz Birikietako Berpizteko teknika egiteko gai da.				
<b>6</b>	Desfibriladorearen ezagutza du eta bere herrian non kokatuta daude ezagutzen du.				

Esku-hartze osoan zehar narrazio etnografikoa erabiliko da (Ikusi 6.eranskina). Etnografia ikerketa-metodo bat da, zeinaren bidez gizarte-taldeen bizimodua atzematen da, interpretazio-izaerako deskribapen eta berreraikuntza analitikoa talde baten kultura, bizimoduak eta gizarte-egitura. Datuak landan jasotzeko jarduteko modu bat da (Londoño, 2012).

### **3.5. ESKU HARTZEAREN DISEINUA**

#### **CURRICULUMAREKIKO LOTURA**

Unitate didaktikoa Gorputz Hezkuntzako 4.eduki multzoan oinarritzen da, hau da, osasuna eta jarduera fisikoa. Lesioak prebenitzea eta hauen aurrean zelan jokatu behar den landu egingo da, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatua izateko. Horretarako Osakidetzak argitaratutako protokoloak erabiliko dira ardatz gisa. Arrisku egoera desberdinak aztertuko dira eta bakoitzaren aurrean zelan jokatu behar den ezagutu eta praktika aurrera eramango da.

## UNITATE DIDAKTIKOA

**Irakasgaia: Gorputz hezkuntza**

Mailak: LH 5 ETA LH 6

**Gaia: Lehen sorospenak**

Saio kopurua: 4

Arazo-egoera:

Testuingurua: Ikasleak eguneko ordu gehienak eskola edo inguruan ematen dituzte. Behin eta berriz min hartzeko arriskuan daude. Min hartzen duten kasuetan eta kaltetu larri bat dagoen kasuan zelan jokatu behar den landuko dugu. Izan ere, ikastetxean bertan desfibriladore bat kokatuta dago eta honen erabilpenaren ezagutza sustatu behar da.

Arazoa: Larrialdi egoera desberdinei aurre egiteko gai izango zinatekete?

Helburua: Lehen sorospen protokolo ezberdinak ezagutzea eta martxan jartzeko gaitasuna lortzea.

Zeregina: Lehen laguntzen ezagutzak aplikatzea azkeneko Gynkhana gainditzeko.

<b>OINARRIZKO GAITASUNAK</b>	Zeharkakoak	Elkarbizitzarako kompetentzia	Norberaren eta besteren nahiak asebetze daitezzen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
	Disziplinar tekoak	Kompetentzia motorra	Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatua izateko osagai ezinbestekoa den aldetik, eta hari lotutako alderdi intrintsekoak eta estrintsekoak identifikatzea.
		IKT kompetentzia	Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuak dituen ohiko arazoak konpontzeko.

### HELBURU DIDAKTIKOAK

### EDURIAK

1. BAS protokoloa ezagutzea jarduera desberdinen bidez, larrialdi egoerak identifikatzeko eta IKTak modu egokian erabiltzeko

2. Kasu azterketen bitartez larrialdi egoera desberdinak identifikatzea, erantzun egokia emateko.

3. Osasuna bermatzeko kopeta kokotsa maniobra ezagutzea eta martxan jartzea taldekideekin erronka kooperatiboen bidez.

- Esku hartzeko larrialdi egoerak identifikatzea.
- Abisu-sistemak, informazioa igortzekoak eta sorospenekoak erabiltzea.
- Informazioa emateko teknikak aplikatzea.
- BASa. Babes-sistemak, abisu-sistemak, informazioa emateko protokoloak, sorospen-sistemak, laguntza-katea eta larrialdietarako sistemak ezagutzea eta martxan jartzea.

<p>4.BBB protokoloa ezagutzea eta erreproduzitzea, taldean elkarlana sustatzeko jarduera kooperatiboen bitartez.</p> <p>5.DESAren funtzionamendua eta erabilpen erreza ezagutzea.</p> <p>6. Laguntza emateko prestutasunaren garrantziaz ohartzea eta taldekide guztien inklusioa bermatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren babeseta eta segurtasuna esku-hartzean. Arrisku pertsonalak eta prebentzio- eta babes-neurriak.</li> <li>- Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei jarraitzea.</li> <li>- DESAren erabilpena eta kokapena ezagutzea.</li> <li>- Lagunekiko errespetu jarrera mantentzea eta elkarlanean aritzea.</li> <li>IKT-ak erabiltzea</li> </ul>
---	---

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Larrialdietako protokolo desberdinak ezagutzea eta bereiztea.
- Taldekideen sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
- Taldean lan egitea, nor bere ardurak onartuz eta helburu komuneke erronketan lankidetzan arituz.
- Lehen sorospenen garrantzia bereganatzea.
- DESaren erabilpena ezagutzea.
- Taldekideak errespetatzea eta modu asertiboan jokatzeko.
- IKT-ak modu egokian erabiltzea

### LORPEN ADIERAZLEAK

- Gai da larrialdi egoera desberdinak identifikatzeko.
- BBB protokoloa ezagutzen du.
- Hemlich maniobra ezagutzen du.
- Kopeta kokotsa maniobra ezagutzen du.
- Besteen ideiak entzun eta baloratzen ditu.
- Taldekideak errespetuz tratatzen ditu.
- Taldekideekin kooperatzen du.
- Lehen sorospenen garrantzia ulertu eta barneratu du.
- DESA erabilpenaren erraztasuna ezagutzen du
- IKT-ak modu egokian erabiltzen ditu.

## SAIOEN PROPOSAMENA

### 1. ETA 2. SAIOAK

#### HASIERAKO FASEA

1.JARDUERA: **Kahoot!**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gela** - Materiala: **Ordenagailua eta chromebook-a**

Kahoot! bat egitea. Zer dakite eta zer ez, eta zer gustatuko litzaieke jakitea lehen laguntzen eta larrialdi egoeren inguruan.

Galdera bakoitza irakurri eta 60 segundo izango dute erantzuteko. Denbora amaitzean erantzun desberdinak komentatuko dira eta zein den erantzun egokia eta zergatik adibideekin azalduko da. Hurrengo saioetan landuko denaren sarrera izango da. Ikusi 1. eranskina Kahoot!-aren galdetegia.

## 2.JARDUERA: **BAS (Babestu, Abisatu, Sorotsi)**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gela** - Materiala:

Aurreko jarduerarekin batera, galdera bakoitzaren erantzuna azaltzeko egoera bat proposatu eta kasu horretan zelan eta zergatik modu horretan jokatu behar den. Kahoot-ean agertu diren galdera bakoitza aztertu eta ikasleek protokoloa ezagutzen duten heinean haiek bakarrik galderei erantzuna emango diete. BAS protokoloa ezagutarazi egoera desberdinen adibideen bitartez.

## 3.JARDUERA: **STOP**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gela** - Materiala:

Harrapatzaile bat iheslariak harrapatzen saiatuko da. Iheslariak STOP esatean gelditu behar dira eta besoak altxatu harrapatuak ez izateko. Taldekideak salbatzeko hanka azpitik pasatu behar dira edota gainean salto egin.

Aldaera: STOP jolasaren aldaera. Pertsona bat gelditzen denean "BABESTU" esango du eta beso bat altxatu diagonalean, bigarren batek bere ondoan gelditu daiteke harrapatua ez izateko, "ABISATU" esango du eta zubi bat egingo dute bien artean (bakoitzaren esku ahurra bestearenarekin lotu). Salbatzeko norbait erditik pasatu behar da SOROTSI esanez.

## ATAL NAGUSIA

### 4.JARDUERA: **Kaltetua arriskutik kendu**

Denbora: **5-10min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala:

Taldea jarriko dira eta batek kaltetuaren papera antzetzuko du, beste kideak lagundu beharko dute arriskutik urruntzen. Denak alde batean jarri eta kaltetua beste alderaino eramane behar dute salbatzeko ahalik eta gutxien mugituz kaltetua, zauritua baitago. Beste aldera heltzean rol aldaketa egingo da eta kaltetua beste kidea izango da.

#### 1. Binaka:

- a. Hanka motzean kaltetua orkatila birrindu duelako.
- b. Kaltetuak ezin ditu hankak erabili

#### 2. Hirunaka:

- a. Kaltetua ezin ditu hankak erabili

#### 3. Seinaka:

- a. Kaltetua ezin da mugitu bidean ahalik eta mugimendu gutxien jaso behar ditu.

### 5.JARDUERA: **Futbol baloirik gabe**

Denbora: **20min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **(txinoak)**

Bi taldetan banatu, poteriara heldu behar da beste taldeko inork harrapatu gabe. Talde bakoitza izango du bere zelai erdia, besteen aldera pasatzen bazara harrapatua izan zaitezke. Beste taldekoak zure zelaira sartzen badira harrapatu ditzakezu. Helburua beste zelaiko poteriara heltzea inork harrapatu gabe. Harrapatzen bazaituzte haien



poterian gelditu behar zara zure taldeko norbait salbatu arte.

Aldaera: Ikurrina jolasa, aurrekoaren antzekoa baina kasu honetan ikurrina (txinoa) lapurtu behar duzu besteen poteriatik eta zure zelaira eraman.

### LASAITZE FASEA

#### 6.JARDUERA: **Sortu**

Denbora: **20 min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala:

Talde txikietan (bostnaka) egoera bat antzeztu beharko dute gaur landu denarekin. Hau da, istripu bat antzeztu (haiek aukeratu egoera). Istripu hori sorosle, kaltetu eta kaleko pertsonak izango dira protagonistak. Talde bakoitzak beste taldeei antzeztu eta asmatu behar dute zein izan den egoera.

Istripu egoera bat antzeztu eta zelan sorostu behar den.

Beste taldeak asmatu beharko du zein izan den egoera eta pertsonai bakoitzaren rola.

### 3. ETA 4. SAIOAK

#### HASIERAKO FASEA

##### 1.JARDUERA: **Kaltetu baten azterketa**

Denbora: **10min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **koltxoneta**

Lehen mailako azterketa kaltetu baten konortea eta arnasketaren konprobaketan oinarritzen da. Binaka, kaltetu bat egongo da. Kaltetua koltxoneta gainean jarriko da. Beste kidea edo bi kideak lehenengo mailako azterketa egin beharko dute. Lehenengo haiek zelan egingo luketen galdetuko da. Konortea duen ala ez aztertu bakoitza bere bikotearekin protokoloa antzestu. Konortea izatekotan edo ez zein da jarraitu beharreko pausoak.

1.Mailako azterketa

Konortea du?

BAI- 2.Mailako azterketa

EZ - Arnasten du?

BAI - 2.Mailako balorazioa

EZ - BBB

#### ATAL NAGUSIA

##### 2.JARDUERA: **Kopeta kokotsa maniobra**

Denbora: **10min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **koltxoneta**

Binaka (bikote berdinak mantenduz) kaltetu bat arnasketa duen konprobatzeko pausoak jarraitu behar dituzte. Irakasleak ere kaltetu bat izango du aurrean eta ikasle guztiak ikusteko adibidea egingo du. Pausoz pauso ikasleak pauso berdinak egingo dituzte haien kabuz. Gero kaltetuaren papera beste batek egingo du denek egin dezaten.

Arnasketa

Jarri biktima ahoz gora zoru gogor baten gainean, eta erreparatu ondo lepoari, bizkarrezurrak behar bezala lerrokatuta egon behar du-eta.

Eztarria estutzen dion arropa erantzi.

Ahoko oztopoak kendu (protesi solteak...)

Kopeta-kokotsa maniobra egin, hau da, masailezurrari gora eragin:

Horretarako, esku-ahurra biktimaren kopetan ipini eta behera eragingo diogu, burua atzera luzatzeko; aldi berean, beste eskuko 2. eta 3. hatzak kokospEAN ipini eta gora jasoko diogu



kokotsa

(Osakidetza,2015)

##### 3.JARDUERA: **Segurtasuneko albo-jarreraren teknika**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **koltxoneta**

Binaka talde berdinetan jarraituz, kaltetu bat segurtasuneko alboko jarreraren teknika pausoak jarraitu behar dituzte. Gero kaltetuaren papera beste batek egingo du denak egin dezaten.

Segurtasuneko albo-jarreraren teknika

1. Erasandako pertsonaren aldamenean kokatu eta beste aldeko besoa tolestu 90ºra, esku ahurra gora begira duela
2. Beste eskua kontrako aurpegian jarri esku ahurra kanpora begira duela.
3. Tolestu gugandik hurbilen duen zangoa.
4. Jarrera horretan dagoela, biratu biktima sorbaldeetatik eta gerrialdetik helduta.
5. Lepoa luzatu
6. Ipini burua bilduta duen besoaren gainean.

#### 4.JARDUERA: **Bihotz birikietako protokoloa.**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **Koltxoneta eta pilota biguna(gomaespumakoa)**

Saio honetan aztertuko dugu protokoloa eta azaltzeko ikasleak izango dira protagonistak, hau da, binaka ikasle bat izango da istripua izan duena eta besteak lagunduko du protokoloa aurrera eramaten. Osakidetzak 2015ean egindako "osasun larrialdiak eskolan" protokoloa erabili da erreferentzia moduan.

Irakaslea gidatzen joango da protokoloa eta ikasleek egingo dute modu praktiko batean.

Kaltetua koltxoneta gainean egongo da eta konpresioak egiteko gomaespuma pilota bat erabiliko da min ez emateko, kaltetuaren papera betetzen ari den ikasleari eta indarra kontrolatzeko (4-5 zm hondoratu behar da protokoloaren arabera).

Gomaespumako pilota ez da azken momenturarte banatuko, bestela arreta galduko dute.

Rolak aldatu eta besteen papera antzeztu beharko dute denek bi rolak hartu arte. Ikusi 2.eranskina BBB protokoloaren pauso guztiekin.

DESA eskolan bertan dagoenez, zer den eta zertako erabiltzen den aztertuko dugu.

#### 5.JARDUERA: **Heimlich maniobra**

Denbora: **15min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala:

Bikote berdinekin HEIMLICH MANIOBRA antzeztu beharko dute.

Irakasleak adibidea egingo du besteen aurrean, pausoz pauso.

Lehenengo kaltetu bat eta gero aldatu denek saia dezaten.

Lehenengo bilatuko dugu bakoitza bere gorputzean non amaitzen diren saihetsak, gero zilborra, eta bien erdian izango da heimlich maniobra egin behar den lekua.

1. Biktima zutik edo eserita egon behar du.
2. Biktimaren atzeko aldean kokatu eta inguratu bi besoekin haren sabelaldea.
3. Ipini ukabil bat, erpurua barrura duela, saihets-hezurren bukaera eta zilborraren artean.
4. Heldu ukabilari beste eskuarekin.
5. Estutu sabelaldea indarrez gora eta barrura, 5 aldiz

#### 6.JARDUERA: **Gynkhana**

Denbora: **20min** - Lekua: **Gimnasio, patioa, frontoia eta kalea** - Materiala: **txartelak**

Txartel bakoitza gainditzeko bete beharko dute erronka. Erronka gainditu duten ala ez irakasleak konfirmatu beharko du, bestela ezin dira hurrengo txartelaren bila joan.

Arauk:

- Taldea batera joan behar da leku guztietara.

- Talde osoa parte hartu behar du erronka gainditzeko.

Txartelak eskolako leku desberdinetan ezkutatuta egongo dira. Talde bakoitzarekin irakasle bat joan da. Talde bakoitza kolore bat du, txartelak koloreekin desberdinu egiten dira jakiteko zein da talde bakoitzarena. Bi taldeetan (taldekide kopuruaren arabera). Ikusi 3. eranskina Gynkhanaren txartelekin.

Altxorra kartoizko kutxa batean egongo da. Barruan ziurtagiri bat dago Lezamako lehen sorospenen gynkahana gainditu dutela adierazten duena. Ikusi 4. eranskina ziurtagiria.

Ikusi 5. eranskina Gynkhanaren errubrika.

#### 7. JARDUERA: **DESA**

Denbora: **10 min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala:

Desfibriladorea zer da, zertarako eta nola erabiltzen den aztertuko dugu. Lezaman hiru desfibriladore daude, non dauden kokatuta aztertu eta eskolan dagoena ikustera joango gara.

Ikusi 6. eranskina DESAren erabilpenaren azalpena.

#### LASAITZE FASEA

#### 8. JARDUERA: **Borobiltzea**

Denbora: **10 min** - Lekua: **Gimnasio, patioa edo frontoia** - Materiala: **pilota**

Borobilean zutik edo eserita saio hauetan landu dugunaren iritzia partekatuko dute, inork derrigortu gabe.

Horretarako pilota bat erabiliko da, bakarrik pilota duena hitz egin dezake. Norbaitek hitz egin nahi badu eskatu beharko du pilota eta duenak eman beharko dio nahi izanez gero. Zailtasunak, lorpenak, emozioak, proposamenak, parte hartzeari buruz, sentimenduei buruz, ea norbait gaizki sentitu den, jardueren zailtasunei buruz, ikasitakoaren inguruan eta denek berdin ikasi dute edo baliozkoa den guztientzat.

## 4. EMAITZAK

Ikasleeak lehenengo unetik interesa izan dute lehen sorospenen inguruan, gaiari buruz bazuten aurretiko informazioa, bai telebistan ikusitakoa bai kalean entzundakoa. "Interesa dute gaiarekiko eta ez dute bildurrik ezta aurreiritzirik larrialdi egoera batekiko" (20210121\_NE). Osasunaren aldeko jarrera eta osotasunean zaintzeko premia adierazi dute.

Erronkak kooperatiboak aurrera eramane dituzte eta hauen bitartez egoera desberdinei erantzun egokia emateko gai dira. Gynkhanako errubrika kontuan izanda (ikus 5. eranskina) atera ditzakegu emaitza ugari.

Babestu, abisatu sorostu protokoloa oso ondo ezagutzen dute, larrialdi zerbitzuetara laguntza eskatzeko gai dira. Horretaz gain, teknikak barneratzeaz aparte, interes handia plazaratu dute edukiarekiko "Mugimendu guztiak egiteko gaitasuna ez ezik, gogotsu egin dute" (20210118\_NE).

Bihotz birikietako berpizteko teknika egiteko gai dira. "Gorputzaren ezagutza dutenez bihotzaren funtzioa eta oxigenoaren garrantzia lotu egin duten haien kabuz Bihotz birikietako bizkortzearen erabilpenaren zergaitiarekin" (20210114\_NE).

Gainera, herrian zehar dauden desbriliadoreak ezagutzen dituzte eta hauen erabilpenaren ezagutza dute. "Ikasle gehienek bazekiten non zegoen desfibriladorea eskola ondoan eta oso harro sentitu dira hori jakitearren" (20210118\_NE).

Kasu azterketa erabili da edukia aurrera eramateko. Larrialdi egoera desberdinen testuinguruak proposatu dira errealitatean eramateko edukia ahalik eta gehien. Denek parte hartu dute haiek bizitako esperientziak kontatuz, eta telebistan ikusi dituzten eszenetan eta horrela larrialdi egoera desberdinak planteatu dira eta zelan jokatu hauen aurrean. "Ikasle guztiak ikusi dute pelikularen bat eta protokoloa beste modu batean egiten zen" (20210114\_NE).

Landutako edukia eta ekintzak lotura ezdua dute eta ikasleak jarduerak aurrera eramateko kontuan izan dituzte protokoloak. "Progresio bat egon da jarduera bakoitzarekin eta protokoloaren atal bakoitza jarduera bakoitzari dagokio" (20210118\_NE). "Ikasleak oso adi egon dira momentu oro. Aurreko egunean egin genuena gogoratzen zuten eta horri jarraipena eman diogula ulertu dute" (20210118\_NE). Ikasleak protokoloak aurrera eramateko interesa adierazi dute eta gehienbat modu errealan adierazteko orduan. "Modu praktikoan ikasleen arreta

mantentzea errazagoa da eta gehiago disfrutatzen dute, horretaz gain parte hartzea askoz handiagoa da" (20210118\_NE).

Hasierako ebaluazioa egiteko IKTak erabili dira, kahoot! programa erabili egin da. Tresna honek datuak lortzeko aukera ematen du baina kasu honetan zailtasunak gertatu dira internet baliabideekin eta ez dira datu fidagarriak atera. "Bakoitzak bere ordenagailu propioa izatea lagungarria izan da. Hala ere, zailtasunak egon dira eskolan internetarekin arazoak izaten dituztelako eta ahoz egin behar izan dugu"(20210111\_NE).

Amaierako ebaluazioa Gynkhanaren bitartez egin da, hau da, erronka kooperatiboak erabili dira ebaluzio tresna moduan eta ikasleen arteko talde lanean eragina izan du. Erronka bakoitza landutako eduki batean fokatuta dago, gainditzeko denek parte hartu behar izan dute eta horrela hurrengo erronkara pasatu dira. Gynkhanako errubrikaren datuak ikusita (5.eranskina), esan dezakegu ikasleak erronka guztiak gainditu dituztela eta elkarlanean aritu behar izan direla lortzeko. "Nesken artean bazegoen lidergo bat eta mutilen artean beste bat, protokoloa hoberen ikasi dutenak eta besteak laguntzen zituztenak guztien artean aurrera eramateko". (20210118\_NE). Ikasleak edukiak barneratu dituzte eta gai dira larrialdi egoera desberdinen aurrean modu egokian jokatzeko. "Gynkhana lehiakortasunean oinarritu dute gehienbat, azkar egiten saiatu dira baina egiteko gai direla eta barneratu dutela adierazi dute" (20210121\_NE). Haien artean errespetuzko jarrera eta elkarlanean aritu dira.

Hasieran neska eta mutilen bereizketa gertatu da taldeak edota bikoteak haiek egiten zituztenean, baina nahastatzeko arazorik ez dutela erakutsi dute ekintzak aurrera egin ahala. "Adin honetan taldeak sortzen dira eta nabaritzen da neska eta mutilen bereizketa" (20210114\_NE).

Oztopo asko egon dira hasieratik aurrera eramanez nahi nuen esku hartzetik amaieran irten denarekin alderatuz. Zailtasun handiena Covid-a izan da, esku hartzea prestatzeko orduan agertzen ziren dudak esaterako burbujak egongo baziren, kontaktua baimenduta bazegoen ikasleen artean, materialaren erabilpena etab. Baita ere protokoloak aurrera eramateko aldaerak egin beharko ziren, adibidez pertsona baten arnasketa konprobatzeko edo kopeta kokotsa maniobra egiteko. Denboraren kudeaketan eragina izan du baita ere, ikasleak gelara igo behar ziren musukoa aldatzeko klase hasieran eta ekintza bat eta bestearen arteak eskuak garbitu behar ziren gel hidroalkoholikoarekin. Saioa lehenago amaitu behar genuen gelara igotzeko haur

hezkuntzako ikasleekin topo ez egiteko, beraz, denbora oso murriztua izan dugu saioak aurrera eramateko. "Denborarik ez zegoen jarduera guztiak egiteko" (20210118\_NE).

Gainera ezin ginen eskola osotik ibili Covid19-agatik eta gynkhana egiterako orduan azken momentuko aldaketan egin behar izan nituen txartelen kokapenagatik "Jantokian utzi dudan erronka gynkanako jardueran aldatu behar izan dut Covid egoera dela eta jantokian ezin zelako sartu" (20210118\_NE). Horretaz gain, esku hartzea diseinatzeko orduan Desfibriladore bat lortuko nuela espero nuen ikasleek ikusteko eta erabilpena hobeto ulertu eta praktikatu dezaten baina ezinezkoa izan zen. "Materiala murriztua izan da, desfibriladore bat lortzea edo manikiak lortzea oso zaila da" (20210118\_NE).

Azkenik, faktore erreztatzaile moduan esan behar da Lezamako eskolako Gorputz Hezkuntzako irakaslearen laguntza izan dut eta eskola osoak animatu gaitu lehen sorospenen garrantzia eta interesa indartuz. Erabakigarria iruditu zait ikasleen begietara irakasleal plazaratu duen interesa lehen sorospenen inguruan eta honek izan beharko lukeen garrantzia txikitatik lantzea. "Irakaslearen laguntza eta formakuntzari ematen dion garrantzia asko lagundu dute aurrera eramateko eta ikasleekin duen harremana lagungarria izan da" (20210118\_NE).

## 5. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lehen Hezkuntzan zehar lehen sorospenen edukia lantzea beharrezkoa eta oso positiboa da. Ikasleek adin tarte horretan larrialdi egoeren aurrean laguntzeko gai izateaz aparte, baloreetan oinarritutako ikaskuntza da. Ikasleak interes handia plazaratu dute gaiaren inguruan eta ikasteko gogoia argi eta garbi adierazi dute. Bigarren zikloan lantzea aproposa dela lantzea ondorioztatu daiteke, izan ere, ikasleek adin nahikoa dute kontzeptuak ulertzeko eta barneratzeko. Adin tarte horretan, hau da, 5. eta 6. mailan maniobra ikasi eta erreproduzitu eta ezagutza teorikoak atxikitzen dira (López-Unanua et al., 2008).

Osakidetzak 2012an egindako ikerketaren arabera ondorioztatu zen herritarrek oinarritzko bizkortzeari irakastera bideratutako estrategiak sortu behar direla (Ballesteros et al., 2013). Lehen hezkuntzako azken zikloan lehen sorospenen edukia sartzea adin hortan funtsezko esperientzia aberasgarriak sustatzen dituzte. Gainera herriak dituen baliabideak ezagutzeko aukera izan da, ikasle gehienek bazekiten non zegoen desfibriladorea baina hasieran ez zuten guztiz argi zer eta zertarako zen eta normaltasunez gaiaren inguruko informazioa jasotzeko aukera izan dute.

Ikasleek interesetatik abiatuta lehen sorospenak bideratzeko arazo simulatuak edo errealak dituzten kasuei aurre eginez ikasten da (Barrachina, 2017). Esaterako BAS (babestu, abisatu, sorotsi) protokoloa azaldu eta STOP jolasaren bitartez landu egin da. Modu honetan hitz teknikoak ikasteaz gain bakoitzaren esanahi praktikoa ulertu dute. Ekintza bakoitza edukiarekin lotura zuzena izan du eta ikasleak ohartarazi dira horretaz. Protokoloak eta egindako jolasak progresio bat dute eta aurretik landutakoarekin lotura egiten dutela konturatu eta ulertu dute.

Metodologiaren aldetik, erronka kooperatiboak martxan jartzea oso baliagarria da, azken finean ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista bihurtzen dituzte, ikasleek lorpenak hautematen dituzte, irakasleak ikaskuntza soilik bideratzen du (Velazquez, 2005). Ikasleak haien eskutik gaiarekiko zuten informazio guztia gelan partekatu dute eta zituzten kontraesanak argudioen bitartez eta irakaslearen laguntzarekin argitu dituzte. Irakasle moduan protokoloak erakutsi ditut eta haien kabuz beste guztia aurrera eramateko gai izan dira. Egoerak haiek proposatu dituzte, zailtasunak zeintzuk diren, zertarako egiten diren etab. Talde lana nabarmena izan da, guztiok parte hartu behar izan dute eta gogotsu egin dute eta edukia barneratu dutela argi utzi dute. Hezkuntza gizartean baliagarriak diren edukiak lantzeko bideratuta egon behar da, eta talde lana,



harremanak eta laguntza eskeintzea dira hauen oinarriak, izan ere, talde-lana indibidualtasunen batura baino handiagoa (Velazquez, 2005).

Ebaluaketa garrantzi handia du, bai ikasleentzat bai irakasleentzat, izan ere, landu dena egokia den ala ez edo lantzeko modua hobekuntzak izan ditzakeen informazioa ematen digu. Ebaluazioa kasu honetan gai, erdizka edo ez gai moduan antolatu da, eta oharrak jartzeko aukera hobekuntzak edo kontuan izateko. Ez da amaierako produktua baloratzen baizik eta ikasleak egin dituzten aurrerapausoak eta haientzat egokituta egon den ala ez ikusteko. Gelan aurrera eramateko proposatu denari egiten den balorazioa ikaskuntza-prozesuari buruzko datuak lana hobetzera (Fernández, 2017).

Esku-hartzearen proposamena hobetzeko, alde batetik urtero egin beharko zen, hau da, bosgarren mailakoek bosgarren mailan lantzea eta hurrengo urtean seigarren maila daudenean baita lehen sorospenen edukia beste modu batean edota sakonki gehiago lantzea esaterako. Horrela bi aldiz landu egiten dute edukia edo lehenengo unitate didaktiko honetan landu dena, hurrengo urtean espezifikotasun handiagoarekin lantzea.

Beste aldetik denbora kontua dela eta, bai Covid19-agatik (musukoak aldatu, eskuak garbitu ekintza bakoitza hasi baino lehen etab.) bai eskola honetan 45 minutuko klaseak soilik diren, saio gehiago beharrezkoak direlakoan nago. Saio osoak izatekotan (covid egoera gabe) 6 saio ematea komenigarriagoa dela uste dut, izan ere ekintza guztiak egiteko denborarik ez da egon. Covid19a dela eta kontaktua murriztua izan da eta protokoloak aurrera eramateko zailtasun handiagoa egon da.

Azkenik, eta garrantzitsuena iruditu zaidana, material espezifikoko gehiago erabiltzea. Nire ustez onura ikaragarria izango litzateke, benetazko DESA, manikiak eta Ambu-a erabiltzeak, ikasleek erabiltzeko aukera izateko praktikak egiten dituzten bitartean.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15.
- Alquézar, M. (2010). Primeros auxilios en la educación física: propuesta didáctica para primaria. *Revista arista digital*.  
[http://www.afapna.es/web/aristadigital/archivos\\_revista/2010\\_diciembre\\_41.pdf](http://www.afapna.es/web/aristadigital/archivos_revista/2010_diciembre_41.pdf)
- Andreu, M<sup>a</sup> Á., González, J.A., Labrador, M<sup>a</sup> J. eta Quintanilla, I. Ruiz, T. (2004). Método del caso. Ficha descriptiva y de necesidades. Universidad Politécnica de Valencia Grupo metodologías activas (GIMA-UPV).
- Antolín, A., Martín, G. eta Barba, J. (2012). El aprendizaje cooperativo para la mejora de la socialización y la educación a través del conflicto. *La peonza*, (7), 3-11.
- Antón, E. (2011). Los juegos cooperativos en educación física. *Pedagogía magna*. 11, or.109-116.
- Ballesteros-Peña, S., C. Abecia-Inchaurregui, L. eta Echevarría-Orella, E. (2013). Factores asociados a la mortalidad extrahospitalaria de las paradas cardiorrespiratorias atendidas por unidades de soporte vital básico en el País Vasco. *Revista española de cardiología*. DOI: 10.1016/j.recesp.2012.09.016
- Barrachina, J. (2017). El método de casos "MC". *Métodos de enseñanza en educación física*, or. 110-111.Inde.
- Bravo, M.L. eta Moyano, D. (2013). Primeros auxilios en situaciones de urgencia vital: percepción general de seguridad. IV Congreso internacional virtual de enfermería y fisioterapia. (2013ko maiatzaren 17tik 28ra).  
[http://congreso-enfermeria.es/libros/2013/salas/sala4/p\\_397.pdf](http://congreso-enfermeria.es/libros/2013/salas/sala4/p_397.pdf)
- Bujan, K. (2001). "Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan. *Revista psicodidáctica*, (012).
- Carrillo, M<sup>a</sup> J. (2019). Intervenciones educativas sobre rcp y primeros auxilios en las escuelas. *Intervenciones educativas sobre rcp y primeros auxilios en las escuelas. NPunto*, (2) 15.

- El Confidencial. (2021). Una niña de 7 años salva la vida de su madre tras llamar al 112. El confidencial, 21/04/2021. [https://www.elconfidencial.com/espana/2018-09-06/nino-4-anos-salva-vida-madre-llamando-112\\_1612172/](https://www.elconfidencial.com/espana/2018-09-06/nino-4-anos-salva-vida-madre-llamando-112_1612172/)
- Estrada, C., Esteban, C., García P. eta Lorente, B. (2008). Guía para la prevención de accidentes en centros escolares. Dirección General de Salud Pública y Alimentación.
- Euskal Herria. Osasun Saila. (2015). *Kanpo-desfibriladore automatiko eta erdiautomatikoen ezarpena eta erabilera arautzen dituen, eta haiek osasun-esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzea beharrezkoa dela xedatzen duena.* euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/02/1500530e.pdf
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Osasun larrialdiak eskolan.* [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osasun\\_larrialdiak\\_eskolan/eu\\_def/adjuntos/Osasun\\_larrialdiak\\_eskolan\\_on-line.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osasun_larrialdiak_eskolan/eu_def/adjuntos/Osasun_larrialdiak_eskolan_on-line.pdf)
- Eusko Jaurlaritzaren informazioa, tramiteak eta zerbitzuak. (2021ko urtarrilaren 21). *Kanpo Desfibriladore Automatizatuen Euskal Erregistroa.* <https://www.euskadi.eus/erregistroa/kda-erregistroa/web01-tramite/eu/>
- Fernández, A. (2015). Formación de la población general en técnicas de resucitación cardiopulmonar básica. Plan salvavidas. Análisis de impacto. (Doktorego tesia). Granadako unibertsitatea.
- Fernández-Río, J. eta Velázquez, C. (2005). *Desafíos físicos cooperativos. retos sin competición para las clases de educación física.* Wanceulen Editorial Deportiva, SL.
- Gallardo, P. (2007). El desarrollo emocional en la educación primaria (6-12 años). Departamento de Teoría e Historia de la Educación y Pedagogía Social. Facultad de Ciencias de la Educación de la Universidad de Sevilla. *Cuestiones Pedagógicas*, or. 143-159.
- García, F., Montero, F.J. eta Encinas, R.M. (2008). La comunidad escolar como objetivo de la formación en resucitación: la RCP en las escuelas. *Revista científica de la sociedad española de medicina de urgencias y emergencias*. 20, (4), or. 223-225.

- Garaigordobil, M. (2002). Intervención psicológica para desarrollar la personalidad infantil. *Juego, conducta prosocial y creatividad*. Pirámide.
- Johnson, D. W. (1981). Student-Student Interaction: The Neglected Variable in Education. *Educational Researcher*, 10(1), 5–10.  
<https://doi.org/10.3102/0013189X010001005>
- Lezamako Udala. (2012). *Hiru desfibrilagailu kokatu dituzte Lezaman*. Lezamako Udala - Hiru desfibrilagailu kokatu dituzte Lezaman
- Londoño, O. (2012). La etnografía desde las narrativas digitales. *Itinerario educativo: revista de la facultad de Educación*, 26 (59), or. 143-166.
- Mendoza, R., Ságrera, M.R. eta Batista, J.M. (1994). *Conductas de los escolares españoles relacionadas con la salud*. C.S.I.C.
- Monsieurs, K., Nolan, J., Bossaert, L., Greif, R., Maconochie, I., Nikolaou, N., Perkins, G., Soar, J., Truhár, A., Wyllie, J. eta Ziderman, D. Recomendaciones para la Resucitación 2015 del Consejo Europeo de Resucitación (ERC) . 1.atala. Laburpen exekutiboa. *Resuscitation*, 95, 1-80.  
<http://dx.doi.org/10.1016/j.resuscitation.2015.07.038>
- Ordovás, J.M. eta Carmena, R. (2004). Nutrigenética y nutrigenómica. *Humanidades médicas*, (9).
- Pellicer, I. (2015). *Neuro Ef - La Revolucion De La Educacion Fisica Desde La Neurociencia*. Inde argitalpena.
- Perez, E., Foley, M. eta Karlin, R. (2021). Atragantamiento y maniobra de Heimlich. In *University of Rochester Medical Center Rochester*.  
<https://www.urmc.rochester.edu/encyclopedia/content.aspx?ContentID=P03919&ContentTypeID=85>
- Sánchez Bañuelos, F. (1996). *La actividad física orientada a la salud*. Inde.
- Sánchez Bañuelos, F. (1997). *Didáctica de la Educación Física y el Deporte*. Gymnos.
- Serra, A. (2021). *El confidencial*. [https://www.elconfidencial.com/sucesos/2021-04-21/alba-nina-sevilla-salva-vida-madre-llama-112\\_3043764/](https://www.elconfidencial.com/sucesos/2021-04-21/alba-nina-sevilla-salva-vida-madre-llama-112_3043764/)

Tenorio, D., Escobar, J., Stid Garzón, E., Castaño, C. eta Acevedo, A. (2009). *Efectividad de intervenciones educativas en primeros auxilios*. Pereira. Areandina: Fundación Universitaria del Área Andina.

Tinning, R. (1996). "Definiendo el área ¿cuál es nuestra área?". *Revista de Educación*. (113).

La Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura [UNESCO]. (2019). Inclusión en la Educación. <https://es.unesco.org/themes/inclusion-educacion>

Vasco, Mauricio. (2006). Desfibrilación externa automática. *Revista Colombiana de Anestesiología*, 34 (2), 113-120. [http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0120-33472006000200007&lng=en&tlng=es](http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0120-33472006000200007&lng=en&tlng=es)

Velázquez, C. (2005). *Desafíos físicos cooperativos: una experiencia en educación primaria*. V Congreso Internacional Virtual de Educación. CiberEduca.

## 7. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: KAHOOT! Galdetegia

Galderak:

1. Larrialdietako protokoloak ezagutzen dituzu?
  - a. Bai
  - b. Ez
2. Kaltetu bat ikusten duzunean zer da lehenengo egin behar dena?
  - a. Sorotsi
  - b. Abisatu
  - c. Babestu**
  - d. Alde egin
3. Soroslea edozein egoeratan sorostu behar du.
  - a. Egia
  - b. Gezurra**
4. Nor deitu istripu egoera batean?
  - a. Ama
  - b. Aita
  - c. 112**
  - d. 11811
5. Zer egin lehenengo?
  - a. Argazki bat atera
  - b. Laguntza eskatu**
  - c. Sorotsi
6. Zer da BBB (RCP)?
  - a. Bihotz birikietako bizkortzea**
  - b. Better Business Bureau
  - c. Kevin Roldanen abesti berria
  - d. BB Cream - Garnier
7. Zertarako BBB?
  - a. Modu artifizial batean oxigenoa zelula guztietara garraiatzeko.
  - b. Kaltetua berpizteko
  - c. Aurreko biak zuzenak dira.**
8. Konpresio bat egitea?
  - a. Bi eskuekin egiten da.
  - b. Bularrean kokatu behar dira eskuak

**c. Aurreko biak egiak dira**

9. Insuflazio bat egiteko

a. Sudurretik egin behar da

**b. Sudurra estali behar da**

10. OINARRIZKO BBB-ren sekuentzia

a. 25 konpresio - 5 insuflazio

**b. 30 konpresio - 2 insuflazio**

c. 50 konpresio 15 insuflazio

11. HEIMLICH MANIOBRA

a. Ordaindu gabe alde egitea

**b. Aire-bidea oztopatzean egiten da.**

c. Dantzatzeko pauso bat.

12. SEGURTASUNeko ALBO-JARRERAREN teknikan

a. Kaltetua ahoz gora geldituko da

**b. Kaltetua alboz geldituko da**

c. Kaltetua belaunak besarkatuko ditu.

13. Zer da Desfibriladorea?

a. Kotxean dagoen gailu bat

**b. Norbait berpizteko gailua**

c. Alexa moduko gailu bat

d. Destornilladore mota bat

## 2. Eranskina: Bihotz birikietako protokoloa

1. Laguntza eskatu (112)

2. BBB

3. Noiz arte?

- Laguntza heldu arte.
- DESA heldu arte.
- Kaltetua berpizten denera arte.
- Nekeak jota gaudenean.

**BBB:**

30 konpresio- 2 insuflazio- 30 konpresio- 2 insuflazio...

## **Zelan egin?**

Bihotz-masajea bularraren erdian eman behar da. Jarri esku bateko ahurraren atzealdea (eskumuturretik hurbilen dagoen zatia) bularren artean, eta beste eskua gainean, eta heldu behatzak (toraxa ukitu gabe). Jarrera hori lortzen denean, perpendikularki biktimaren gainean besoak luzatuta markatzen da, eta indarra goitik behera egiten da, bularrezurra 4-5 zm inguru hondoratu arte, azkar eta trinko. 30 konpresio egin eta gero 2 putzaldi ahotik ahora. Sudurra estaliz eta arnasbidea irekiz egin behar dira.

## **Uretan itota bazegoen?**

Orduan berdina izango litzateke baina konpresioekin hasi baino lehen 5 insuflazio egin behar dira. 5 insuflazio - 30 konpresio; - 2 insuflazio - 30 konpresio - 2 insuflazio (...)

## **Oso txikia bada?**

8 urte baino txikiagoen kasuan, esku bakar batekin egiten da (ez delako hainbeste indar behar).

## **3. Eranskina: Gynkhanako txartelak**

Lehenengo txartela irakasleak emango dio, bertan ongi etorria ematen zaie Lezamako Lehen sorospenen gynkhanara.

Bigarren txartela irakasleak emango dio baita eta bertan arauak azalduta daude, ikasle bolondres batek irakurriko ditu. Arauak kontuan hartu direla orduan lehenengo erronken txartela jasoko dute (talde bakoitzak bat):

**1.Txartela:Kaltetu bat dagoela iturri ondoan abisatzen zaituzte.**

**2.Txartela: Laguntza behar duen norbait ikusten dugunean zer egin behar dugu?** Babestu, Abisatu eta Sorots (hiru pausoak antzeztu behar dute hurrengo txartela jasotzeko)

**3.Txartela: Galdera:** Zein dira eman behar diren datu garrantzitsuak 112 deitzean?

**5.Txartela: Konorterik duen kaltetu baten protokoloa?** Segurtasuneko albo-jarreraren teknika dakitela erakutsi hurrengo txartela jasotzeko

**6. Txartela: Kaltetua ez badu konorterik zein da protokoloa?** Laguntza eskatu eta BBB egin



## 7. Txartela: Laguntza heldu egiten da eta DESAren bila joateko eskatzen dizu.

DESA jakin behar dute non dagoen eta bertaratu.

## 8. Txartela: taldea biak batu behar dira eta altxorraren bila joan daitezke denak batera, altxorra futbola ikusteko esertzen garen tokian egongo da.

### 4. Eranskina: Altxorra

Altxorra kartoizko kutxa batean egongo da. Barruan ziurtagiri bat dago Lezamako lehen sorospenen gynkahana gainditu dutela adierazten duena.



### 5. Eranskina: Gynkhanaren errubrika

Ekintza honetan errubrika bat bete izan da ikasleen aurrerapausoak egiaztatzeko.

LEHEN SOROSPENEN GYNKHANA	GAI	ERDIZKA	EZ GAI	Oharrak
<b>Istripu batean laguntza emateko gai da.</b>	X			"ez dute bildurrik ezta aurreiritzirik larrialdi egoera batekiko" (20210118_NE).
<b>Babestu, Abisatu eta Sorotsi protokoloa ezagutzen eta martxan jartzeko gai da.</b>	X			"Nesken artean bazegoen lidergo bat eta mutilen artean beste bat, protokoloa hoberen ikasi dutenak eta besteak laguntzen zituztenak". (20210118_NE). (HARREMANEN INGURUAN HITZ EGITEKO)
<b>Larrialdi egoera batean larrialdi zerbitzuetara laguntza eskatzeko gai da.</b>	X			"911ra deitu behar zen?" (20210121_NE).
<b>Segurtasuneko albo-jarreraren teknika egiteko gai da.</b>	X			"Mugimendu guztiak egiteko gaitasuna ez ezik, gogotsu egin dute"(20210118_NE).
<b>Bihotz Birikietako berpizteko teknika egiteko gai da.</b>	X			"Covid egoera dela eta ezin dira insuflazioak egin"(20210118_NE).
<b>Desfibriladorearen ezagutza du eta bere herrian non kokatuta daude ezagutzen du.</b>	X			

## 6. Eranskina: DESAren erabilpena

### Kanpoko desfibriladore erdiautomatikoak elementu hauek ditu:

1. DESA aparatua
2. Helduendako eta pediatrikoendako elektrodoak edo partxeak.
3. BBB maniobretarako lehen erantzuneko kita, honela osatua:
  - a. Aire emateko aho-babeslea.
  - b. Ahate-guraizeak, segurtasunekoak.
  - c. Bizarra egiteko hortza, elektrodoaren eremuan ilea kentzeko.
  - d. Toailatxo hezea.
  - e. Paperezko eskuoihala.
  - f. Latexezko eskularruak.

### Zelan erabili DESA:

1. Ziurtatu pertsona ez dagoela inongo metalekin kontaktuan.
2. Gailua ireki eta DESA piztu.

3. Gehienek hiru botoi edo urrats dituzte: 1 piztuta, 2 bihotz-erritmoaren azterketa, 3 deskarga edo talka elektrikoa.

4. Jarri elektrodo itsasgarriak biktimaren toraxaren gainean: bat eskuineko klabikularen azpian eta bestea ezkerreko galtzarbearen erdiko lerroan (ezkerraldean, galtzarbetik 10 cm ingurura).

5. Jarraitu DESAK ematen dituen hitzezko eta ikusizko jarraibideei.

6. Inork ez du biktima ukitu behar, DESAK bihotz-erritmoaren azterketa egiten duen bitartean.

7. Deskarga egokia bada:

- a. Inork ez du biktima ukitu behar.
- b. Sakatu deskarga-botoia, aparatuak adierazten digunean.
- c. Jarraitu DESAK ematen dituen ondorengo jarraibideei: berrabiarazi RCP 30:2

Jarraitu larrialdi-gailuak iritsi arte (112 larrialdia)

## 7. Eranskina: Narrazio etnografikoa

### 1. eta 2. SAIOAK 5. MAILAN (2021/01/11):

5. mailan 14 ikasle dira, 4 neska eta 10 mutil. Gaurko saioan 12 ikasle egon dira, faltatzen zirenen artean bat kuarentenan zegoen. Gorputz hezkuntzako 2 saio dituzte asteen eta jarraian ematen dituzte astelehenetan jantokiko patioaren ostean, hau da, 14:30tik 16:00ra. COVIDa dela eta eskola hasten direnetik etxera bueltatu harte musuko aldaketa bat egiten dute, hau da, etxetik ekarri dutena edo eskolan bertan eman diotena zakarrontzira bota eta berri bat hartzen dute. Prosezu hori arratsaldeko lehenengo saioan egiten da, gaurko kasuan gorputz hezkuntzako saioaren hasieran.

#### **1. Esperintziak eta anekdotak**

“Kaltetu bat ikusten dugunean bonberoak deitu behar dira”

#### **2. Planifikazioa**

##### **2.1 Aspektu metodologikoak**

###### **2.1.1. Diseinua**

Saioaren diseinua oso egokia izan da baina ez da egon denbora jarduera guztiak egiteko. Covid egoera dela eta denbora murriztuagoa izan dugu. Jardueren artean gel hidrokalkolkoa bota behar izan da.

Jarduerak bata bestearekin lotura izan dute eta landu denarekin zerikusia zutela konturatu dira ikasleak.

###### **2.1.2. Espazioa eta materiala**

Espazioa ondo kudeatu egin da, saioa gelan hasi da kahoot-a egiteko eta bakoitzak chromebook-a zuen jarduera aurrera eramateko. Kahoot-a ostean azalpena eman da gelan leku kontrolatuago bat delako eta arreta mantentzeko aukera gehiago daudelako.

Beste jarduerak egiteko ez da materialik behar izan, bakarrik ikurrina ekintza egiteko txinoak erabili dira.

###### **2.1.3. Arazoak**

Kahoot lehenengo jardura horretan internet konexio arazoak gertatu dira.

Hitz batzuk ez zituzten ulertzen eta horrekin batera galdera zailegia izan da ulertzeko.

Denbora gehiago behar zuten galdera irakurtzeko eta ulertzeko.

## **2.2.Proposamen didaktikoa**

### **2.2.1. Zer planteatu dugun**

Gaurko egunean planteatu dena izan da BAS protokoloa zer eta zertarako den eta egin diren ekintzak protokoloa gogoratzeko.

1.Kahoot! Gaiari sarrera emateko

2. BAS protokoloa ezagutu

3. STOP beroketa egiteko eta arriskuan ez jartzeko gure burua

3.2. ALDAERA BAS gogoratzeko

4.KALTETUA ARRISKUTIK ATERA protokoloaren atala praktikan jartzea

5.IKURRINA kaltetuarengana heldu eta arriskutik ateratzearen helburua duen ekintza.

(6.)EGOERAK ANTZEZTU ikasitakoarekin istorio bat asmatu eta beste taldeari erakutsi protokoloa zelan egin behar den

### **2.2.2.Ikasleen erantzunak**

Gaiarekiko interes handia izan dute lehenengo unetik.

Oso lehiakorrak dira eta ekintza guztietan irabazi nahi dute.

### **2.2.3.Balorazioak**

## **2.3.Faktore erreztatzaileak**

Talde txikia izatea erreztasunak ematen ditu.

Bakoitzak bere ordenagailu propioak izatea.

Parte hartu dute pentsatzen zutena azaltzeko.

#### **2.4. Faktore oztopatzaileak**

Internet arazoak, chromebook-arekin gela guztiak egiten dute lan eta internet-a askotan ez dabil abiadura nahikoarekin.

COVID egoera dela eta:

- Musukoaren erabilpena denbora guztian
- RCP protokoloa osoriak ezin da egin ahoz ahokoa ez delako egiten
- Jarduera bat eta bestearen artean eskuak garbitzea
- Materialaren erabilpena murriztuagoa izatea
- Denbora behar izatea erabiltzen den materiala garbitzeko
- Materiala ezin partekatzea.
- Lehenago amaitzeak patioan txikiekin ez batzeko

Denboraren kudeaketa

### **3.Harremanak**

#### **3.2. Irakasleekiko jarrerak**

Ikasleek jarrera egokia izaten dute gehienetan irakasleekin. Salbuespen batzuk egoten dira, gaurko kasuan bi ikasle izan dira eta arreta gehien deitzen saiatzen direnak dira. Protagonismo bila egon dira klasean zehar bai irakasleekiko bai beste ikasleekiko.

Azalpenak entzuteko interesa eta arreta mantendu dute irakaslearengan eta errespetuz parte hartu dute gehienbat.

#### **3.3. Ikasleen arteko harremanak**

Ikasleen arteko harremanak orokorrean onak izaten dira. Jarduera bat gelditu behar izan da bi ikasleen artean eztabaidan hasi direlako.

Ez da ikusi inork baztertuta, bakarrik egon dira bi ikasle parte hartze gutxiago izan dutela aldizka.

Gaur zeuden hiru neskek denbora gehiena elkarrekin eman dute baina ez da ikusi mutilengan hurruntzen zirenik eta haiekin ere jolasten zuten. Hau da, nahiz eta elkarrekin egon mutilekin jolastu dute eta mutilen aldetik ez da bereizketarik egon

jolasterako orduan. Adibidez, harrapaketa jolastean neskek ez zuten neskeei soilik harrapatzen ezta mutilek mutilei.

### **3.4. Rolak**

Bi ikasle protagonista daude, hau da, protagonismo bila daudenak. Batek harrapatzaile izan nahi zuen beti eta besteak lurrean esertzen zen harrapatzailearen eta besteen arreta deitzeko.

Beste ikasle bat garbi jokatu behar dela eta gauzak modu egokian egin behar direlaren rola hartzen du beti. Oso arduratsua da eta beti laguntzeko prest dago, bai taldekideei bai irakasleei bai kaleko edonori.

Beste bi ikasle aldizka parte hartzen zuten.

## **4.Sentipenak**

### **4.1. Kezkak eta zalantzak**

Zenbat ikasle izango ziren.

Ikasleen artean izango zituzten harremanak.

Pertsonak garraiatzeko orduan kontuz ibili behar ziren inork mina hartu ez zedin.

### **4.2. Beldurrak**

Ikasleek ez izatea interesa gaiarekiko.

Ikasleek ez ulertzea azaldutako eta saioa galtzeaz gain alferrikoa izatea esfortsua.

Eguraldia txarra izatea eta kalean ezin egitea jarduerak.

COVID dela eta ezin izatea kontaktua haien artean

### **4.3. Erronkak**

Kahoot-a ez ibiltzea eta puntuazio gabe jolastu dezaten.

Denen parte hartzea sustatzea.

Protokoloko hitzak erabiltzea jolasean zehar.

Euskaraz egin dezaten.

#### **4.4. Hausnarketak**

Ezin da dena kontrolpean izan, ezin da jakin ikasleak zenbat denbora behar duten gauza bakoitzerako, ezin da jakin egunero zenbat ikasle izango dituzun ezta zenbat parte hartuko duten ezta haien gogoak. Beraz, planifikazio bat eraman behar da beti beti egon behar da prest aldaketak egiteko, denbora beste modu batean kudeatzeko edota parte hartzeko ekintza batean bikoitiak izateko.

Azalpenak ematerako orduan hitz teknikoak ondo azaldu eta gehienbat egoerak ipini pausos pauso zer egin behar den ulertzeko. Umeak egoera imaginatu behar dute eta egoera horri ezaugarriak sartu behar zaie hobeto ulertu dezaten protokoloak.

Ikasleak adin honetan badute kontzientzia istripu egoera baten aurrean egon ahal direla edozein momentuta. Larrialdi egoera batean nondik norakoak ulertzeko gai dira eta laguntza emateko prest eta gaitasuna dute.

### **5.Inzidente kritikoak**

#### **5.1. Gertaerak**

1.Kahoot egitean internet behin eta berriro joan egin da.Kahoot-eko galderak erantzuteko zuten denbora oso eskasa izan da. Galdera batzuk ez zituzten ondo ulertzen

2.Jardueretan ikasleak gutxi mugitu egiten ziren

3. Babestu Abisatu eta Sorotsi hitzak erabili behar zirenak ariketan zehar ez zituzten gogoratzen

4.Denborarik ez zegoen jarduera guztiak egiteko

#### **5.2. Hartutako erabakiak**

1.Kahoot-a ahoz egin dugu, nik irakurtzen nituen galderak eta erantzunak eta bakoitzak bere erantzuna ematen zuen. Galderen erantzuteko denbora handitu. Galderak hurrengo egunerako idatzita eraman eta lehenengo galdera ondo ulertu dezaten erantzun baino lehen.

2.Zelaia murriztu egin da hurrengo jarduerarako

3.Rap txiki bat egin da hitzak gogoratzeko azkar batean.



4. Azken jarduera hurrengo egunerako utzi egin dugu moldatu daitekeen ariketa bat delako eta hurrengo egunarekin lotura zuzena duelako.

### **1. eta 2. saioak 6. mailan (2021/01/14):**

6. mailako ikasleak gorputz hezkuntza dute ostegunetako azken bi orduetan, hau da, arratsaldekoak 14:30-16:00.

Gela honetan 13 ikasle dira eta zenbait klasetan 14. ikasle bat etorri egiten da. Ikasle hori zailtasunak dituen ikasle bat da gurpildun aulkia erabili behar duena mugikortasunik ez duelako. COVID egoera hau dela eta, gurasoak eta eskola erabaki dute ikasle horren segurtasuna bermatzeko klase barruan beste ikaskideekin ez egotea. Beraz, 13 ikasle egon dira gaurko saioan eta 4 neska eta 9 mutil izan dira.

### **1. Esperintziak eta anekdotak**

“Hil egiten baduzu salbatzen saiatzean kartzelara zoaz.”

### **2. Planifikazioa**

#### **2.1 Aspektu metodologikoak**

##### **2.1.1 Diseinua**

Landu den edukia ez zen guztiz berria ikasleentzat, hitz teknikoak, mugimenduak eta hainbat gauzen inguruan bazuten ideia batzuk.

##### **2.1.2. Espazioa eta materiala**

Bakoitza bere chromebook-a erabili du eta gelako ordenagailua zein pantaila handia erabiltzeko aukera izan dugu eta eraginkorra izan da. Gela erabili da kahoot eta azalpena emateko eta gero frontoia eta futbol zelaia erabili dira ekintzak egiteko.

##### **2.1.3. Arazoak**

#### **2.2. Proposamen didaktikoa**

##### **2.2.1. Zer planteatu dugun**

Gaurko egunean planteatu dena izan da BAS protokoloa zer eta zertarako den eta egin diren ekintzak protokoloa gogoratzeko.

1. Kahoot! Gaiari sarrera emateko

2. BAS protokoloa ezagutu
3. STOP beroketa egiteko eta arriskuan ez jartzeko gure burua egin da.
- 3.2. ALDAERA BAS barneratzeko jolasa
- 4.KALTETUA ARRISKUTIK ATERA protokoloaren atala praktikan jartzea
- 5.IKURRINA kaltetuarengana heldu eta arriskutik ateratzearen helburua duen ekintza.
- (6.)EGOERAK ANTZEZTU ikasitakoarekin istorio bat asmatu eta beste taldeari erakutsi protokoloa zelan egin behar den

### **2.2.2.Ikasleen erantzunak**

Ikasleak parte hartu dute hasieratik, lehenengo ekintza kahoot-ean kontatu dituzte egoera desberdinak eta pelikulekin eta serie batzuekin alderatu dute protokoloa. Dudak agertzen ziren einean partekatu dituzte eta guztion artean erantzun dira.

### **2.2.3.Balorazioak**

Ikasleek oso jarrera ona izan dute gaiarekiko, interesa erakutsi dute eta protokoloaren erabilpenaz gain kontzientzia hartu dute duen garrantziaz.

Protokoloaren pausoak eta hitz gakoak barneratzeko gaitasunak dituzte gero jolasetan erakutsi dituztenak.

### **2.3.Faktore erreztatzaileak**

Ikasleek gaiaren inguruan bazuten aurretiko informazioa, beraz, azalpena bideratzeko haien laguntzarekin askoz errezagoa izan da.

Gorputzaren ezagutza dutenez bihotzaren funtzioa eta oxigenoaren garrantzia lotu egin duten haien kabuz Bihotz birikietako bizkortzearen erabilpenaren zergaitiarekin.

### **2.4.Faktore oztopatzaileak**

Garrantzi gehiago ematen diote kahoot-ean azkar erantzuteari, erantzun guztiak ondo irakurtzeari baino.

Ikasle guztiak ikusi ditu pelikularen bat eta protokoloa beste modu batean egiten zen.

## **3.Harremanak**

### **3.2. Irakasleekiko jarrerak**

Irakaslea errespetuz tratatzen dute orokorrean. Nagusiak egiten diren einean gero eta gutxiago parte hartzen dute jolasetan irakasleekin, orain haien artean soilik jolastu nahi dute eta irakaslearen presentzia jolasetan alde batera usten dute.

### **3.3. Ikasleen arteko harremanak**

Gela honetan nabaritzen da bereizketa egiten dela haien artean. Korro batean eresi dira eta argi eta garbi ikusi da, alde batetik neska guztiak eta mutil bat, beste aldetik mutil talde bat arreta gehien deitzen duena klasean zehar, eta azkenik mutil talde txiki bat ez zuela ezta alde batera ez bestera egiten, bere kontura ibiltzen dira.

Jolasterako orduan denak batera egiten dute baina nabaritzen da neska gehienak mutil bakar batengana hurbiltzen direla eta neska eta mutil bat beti daude borrokatzen baina ez direnak banatzen.

### **3.4. Rolak**

Hiru indar nagusitzen dira gelan, lehenengoa beti grazia egiten edo izorratzen ari dena eta bere atzetik jarraitzaile pare bat dituenak.

Bigarrenik nesken lidergoa edo gehien nabarmentzen dena haien artean eta beste neskak jarraitzen diote.

Azkenik nagusitzen da neska guztiak jarraitzen duten mutila, mutil hori parte hartzen du klasean bai azalpenetan bai jolasetan guztiekin, bere bidea jarraitzen du eta ez da sartzen ez lehenengo taldean ez nesken taldean baina bitartekari moduan egiten du hiru taldeen artean. Bere atzean baditu ikasle batzuk ez direla ez nesken taldean sartzen eta ez dutela bat egiten bigarren taldearekin ezta ere.

## **4. Sentipenak**

### **4.1. Kezkak eta zalantzak**

Gai izango ziren taldeak haiek egiteko eta arazorik ez egoteko. Taldeak konpentsatuta egotea bai altuera bai pisuagatik eta inork gaizki ez sentiaraztea.

### **4.2. Beldurrak**

Aurreko egunean gertatu zen berdina gertatzea, hau da, interteta ez ibiltzea eta kahoot-a ahoz egin beharra.

### **4.3. Erronkak**

Taldeak egiterako orduan haien kabuz egin dezaten arazorik gabe.

Inork alboratuta ez egotea, denak parte hartu dezaten eta ez beti berdinak.

### **4.4.Hausnarketak**

Adin honetan taldeak sortzen dira eta nabaritzen da neska eta mutilen bereizketa. Hala ere, ez dute arazorik denak batera edo neska mutil nahasketa egiteko. Bakarrik hasierako itzura ematen dute neska mutil aldenketa hori egiten dutela baina haien arteko harremana estua eta ona da.

## **5.Inzidente kritikoak**

### **5.1. Gertaerak**

- 13 ikasle dira gela honetan, beraz, binaka,hirunaka edo bi taldetan jartzeko ez zuen ematen ikasle kopurua.

### **5.2. Hartutako erabakiak**

- Nik ere parte hartu dut ekintzetan edo bestela irakasleak hartu du parte edota biak.

### **3 eta 4. saioak 5.mailan (2021/01/18):**

Gaurko saioan 10 ikasle soilik egon dira, 3 neska eta 7 mutil.

## **1.Esperintziak eta anekdotak**

“Oso dibertigarria da gynkahana hau”

## **2.Planifikazioa**

### **2.1 Aspektu metodologikoak**

#### **2.1.1Diseinua**

Gaurko saioa praktikoa izan da eta gero erronka batzuk gainditu behar zituztenez praktika horiek eginez arreta handia prestatu da. Saio hasiera gimnasioan egin da bertan materiala dagoelako eta azalpenak eman datezke modu eroso batean.

Progresio bat egon da jarduera bakoitzarekin eta protokoloaren atal bakoitza jarduera bakoitzari dagokio. Beraz, egoera baten aurrean zelan jokatu jakiteko zentsua zuen jarduera bakoitza.

### **2.1.2.Espazioa eta materiala**

Koltxonetak ikasleak hotzik ez hartzeko eta kaltetuaren papera erosoago egiteko izan da. Baloiak azken momentuan banatu izan dira arreta mantentzeko, izan ere, material asko dadute aurrean edo jolasteko zerbait arreta galtzen dute azkar.

Gimnasioan egin dira praktikak, 5 bikote egin dira horretarako eta koltxonetak irakasleak kokatu ditugu. Atzean hiru koltxoneta alboz, aurrerago 2 tartekatuta atzekoekin denok ikusteko eta irakaslea nire bikotea izan dena aurrean jarri gara denak gu ikusteko eta guk besteak baita ere. Horrela gure mugimenduak imitatu ahal zituzten eta aldi berean gure lekutik zuzenketak egin genezake. Esan beharra dago gimnasioan ispilu handi bat dagoela orma oso bat espaltzen duena eta oso lagungarria dela ikuspuntu gehiago izateko.

### **2.1.3.Arazoak**

Gimnkhana prestatzeko gorputz hezkuntzako saioa baino lehen joan nahiz eskolara txartelak eskola esparrutik eskutatzeke, baina jantoki ostean patioa dutenez itxaron behar izan dut gelara joaten ziren bitartean horiek izkutatzeko ikasleak ikusi gabe. Klasea nik eman behar nuenez ezin nintzen joan klase bitartean ezkutatzera eta irakaslea nirekin egon behar denez ezta ere.

## **2.2.Proposamen didaktikoa**

### **2.2.1. Zer planteatu dugun**

1. Lehenengo mailako azterketa zer den eta zertarako den pausos pauso:
2. Kaltetu batek arnasten duen konprobatu
3. Segurtasun albo jarrera teknika
4. BBB protokoloa zelan egin
5. Heimlich maniobra
6. GYMKHANA

## 7. Hausnarketa

### **2.2.2. Ikasleen erantzunak**

Ikasleak oso adi egon dira momentu oro. Aurreko egunean egin genuena gogoratzen zuten eta horri jarraipena eman diogula ulertu dute.

Mugimendu guztiak egiteko gaitasuna ez ezik, gogotsu egin dute.

Gynkhanan ez dira lehiakortasunean oinarritu, ondo egiten saiatu dira eta gehienbat esfortsu handiena izan da adierazi nahi izan dutela benetan barneratu dutela.

### **2.2.3. Balorazioak**

Ikasleak gaitasuna dute lehen sorospenen eduki lantzeko eta barneratzeko. Interesa dute gaiarekiko eta ez dute bildurrik ezta aurreiritzirik larrialdi egoera batekiko.

### **2.3. Faktore erreztatzaileak**

Ikasleen interesa eta partaidetza oso lagungarria izan da klasea aurrera eramateko.

Irakaslearen laguntza eta formakuntzari ematen dion garrantzia asko lagundu dute aurrera eramateko eta ikasleekin duen harremana lagungarria izan da.

### **2.4. Faktore oztopatzaileak**

Covid egoera dela eta ezin dira insuflazioak egin. Materiala murriztua izan da, desfibriladore bat lortzea edo manikiak lortzea oso zaila da.

## **3. Harremanak**

### **3.1. Lidergo motak**

Nesken artean bazeoen lidergo bat eta mutilen artean beste bat, protokoloa hoberen ikasi dutenak eta besteak laguntzen zituztenak.

### **3.2. Irakasleekiko jarrerak**

Irakasleekiko jarrera egokia izan dute, bai niregan bai beste irakaslearengan. Pilotak banandu direnean baten bat bai arreta galdu duela eta jolasten hasi da baina une oso laburra izan da. Egiten nuen mugimendu bakoitzean arreta jartzen zuten haiek ere egiteko.

### **3.3. Ikasleen arteko harremanak.**

Ikasleen artean orokorrean harreman onak egoten dira, gaurko kasuan ikasle gutxiago izan direnez arreta gehiago deitzen dute edozein gauza egitean. Neskak taldeak egin behar direnean ahal den neurrian batera jartzen dira. Bikoteak egiterakoan 2 neska batera jarri dira eta hirugarrena mutil batekin jarri behar izan da baina ez da arazorik egon (bikoteak haien kabuz aukeratu dituzte).

## **4. Sentipenak**

### **4.1. Kezkak eta zalantzak**

Eguraldiaren arabera txartelak itsatsiko ziren edo buztiko ziren.

### **4.2. Beldurrak**

### **4.3. Erronkak**

### **4.4. Hausnarketak**

Ikasleak gai dira erronken bitartez ikasteko eta oso metodo egokia dela ikasketa esanguratsu bat gerta dadin.

Modu praktikoa batean ikasten dena askoz gehiago barneratzen da. Zure eskuekin edo zure kontura egiten ez duzuna, hau da, teoriarik ematen dena askotan gero ez gara gai aurrera eramateko modu erreal batean. Modu praktikoa ikastean, aldiz, memorizatu eta egiteko prestatzen gara.

Modu praktikoa ikasleen arreta mantentzea errazagoa da eta gehiago disfrutatzen dute, horretaz gain parte hartzea askoz handiagoa da.

Ikasle gehienek bazekiten non zegoen desfibriladorea eskola ondoan eta oso harro sentitu dira hori jakitearren.

## **5. Inzidente kritikoak**

### **5.1. Gertaerak**

Jantokian utzi dudana erronka gintzanako jardueran aldatu behar izan dut Covid egoera dela eta jantokian ezin zelako sartu.

### **5.2. Hartutako erabakiak**

Txartela jantokian barruan utzi beharrean atean itsatsita utzi dut, horra ez ziren sartu behar.

### **3. eta 4. saioak 6.mailan (2021/01/21):**

Gaurko saioan 13 ikasle izan dira, 14.ikaslea gurpildun aulkiduna ez da etortzen gelakideekin erdi gaixorik egon delako eta bere segurtasunez beste gela batean egoten da.

#### **1.Esperintziak eta anekdotak**

“Orain badakit sorosten”

“ 911ra deitu behar zen?”

“Eta zuk egiten zenion putz pertsona bati praktikaldian?, ze nazka”

#### **2.Planifikazioa**

##### **2.1 Aspektu metodologikoak**

###### **2.1.1Diseinua**

Gaurko saioa praktikoa izan da eta gero erronka batzuk gainditu behar zituztenez praktika horiek eginez arreta handia prestatu da. Saio hasiera gimnasioan egin da bertan materiala dagoelako eta azalpenak eman ditezke modu eroso batean.

Progresio bat egon da jarduera bakoitzarekin eta protokoloaren atal bakoitza jarduera bakoitzari dagokio. Beraz, egoera baten aurrean zelan jokatu jakiteko zentsua zuen jarduera bakoitza.

Atal nagusiaren azken ariketa jaso diren eduki guztiak biltzen zituen, beraz, haientzako erreposoa izateaz gain, irakasleoi erakutsi digu benetan barneratu dutela.

###### **2.1.2.Espazioa eta materiala**

Koltxonetak ikasleak hotzik ez hartzeko eta kaltetuaren papera erosoago egiteko izan da. Baloiak azken momentuan banatu izan dira arreta mantentzeko, izan ere, material asko badute aurrean edo jolasteko zerbait arreta galtzen dute azkar.

Gimnasioan egin dira praktikak, 7 bikote egin dira horretarako (irakaslea parte hartu du bikoitiak izateko) eta koltxonetak irakasleak kokatu ditugu. Atzean hiru koltxoneta alboz, aurrerago 2 tartekatuta atzekoekin denok ikusteko eta beste bikotea izan den



aurrean jarri da (nik gidatu dudana) denak gu ikusteko eta guk besteak baita ere. Horrela gure mugimenduak imitatu ahal zituzten eta aldi berean gure lekutik zuzenketak egin genezake. Esan beharra dago gimnasioan ispilu handi bat dagoela orma oso bat espaltzen duena eta oso lagungarria dela ikuspuntu gehiago izateko.

### **2.1.3.Arazoak**

Gynkhana prestatzeko gorputz hezkuntzako saioa baino lehen joan nahiz eskolara txartelak eskola esparrutik eskutatzeke, baina jantoki ostean patioa dutenez itxaron behar izan dut gelara joaten ziren bitartean horiek izkutatzeko ikasleak ikusi gabe. Klasea nik eman behar nuenez ezin nintzen joan klase bitartean ezkutatzera eta irakaslea nirekin egon behar denez ezta ere.

## **2.2.Proposamen didaktikoa**

### **2.2.1. Zer planteatu dugun**

1. Binaka jarrita, bikoteko bat kaltetua izango da, bestea soroslea izango da. Aurreko egunean landu genuena erreparatu eta martxan jarriko da. (BAS)  
Sorostuko da kaltetua:
2. Lehenengo mailako azterketa zer den eta zertarako den pausos pauso:
3. Kaltetu batek konortea duen konprobatu
4. Kaltetu batek arnasten duen konprobatu
5. Segurtasun albo jarrera teknika
6. BBB protokoloa zelan egin
  - Uretan zegoen kaltetuaren kasuan
  - 8 urte baino gutxiagoko kaltetuan
7. Heimlich maniobra
8. GYMKHANA
9. Hausnarketa

### **2.2.2.Ikasleen erantzunak**

Hasieran zailtasunak egon dira, kaltetuaren papera antzezten zuena ez zen geldirik egoten, zarata asko egon da bakoitza bere interpretazioa egiten ibili direlako... baina klasea aurrera egin ahala lasaitzen eta arreta jartzen hasi dira.

Aurreko egunean egin genuena gogoratzen zuten eta horri jarraipena eman diogula ulertu dute.

Mugimendu guztiak egiteko gaitasuna ez ezik, gogotsu egin dute.

Gynkhana lehiakortasunean oinarritu dute gehienbat, azkar egiten saiatu dira baina egiteko gai direla eta barneratu dutela adierazi dute.

### **2.2.3.Balorazioak**

Ikasleak gaitasuna dute lehen sorospenen eduki lantzeko eta barneratzeko. Interesa dute gaiarekiko eta ez dute bildurrik ezta aurreiritzirik larrialdi egoera batekiko.

### **2.3.Faktore erreztatzaileak**

Ikasleen interesa eta partaidetza oso lagungarria izan da klasea aurrera eramateko.

Irakaslearen laguntza eta formakuntzari ematen dion garrantzia asko lagundu dute aurrera eramateko eta ikasleekin duen harremana lagungarria izan da.

### **2.4.Faktore oztopatzaileak**

Covid egoera dela eta ezin dira insuflazioak egin. Materiala murriztua izan da, desfibriladore bat lortzea edo manikiak lortzea oso zaila da.

## **3.Harremanak**

### **3.1.Lidergo motak**

### **3.2. Irakasleekiko jarrerak**

Irakasleekiko jarrera egokia izan dute, bai niregan bai beste irakaslearengan. Pilotak banandu direnean baten bat bai arreta galdu duela eta jolasten hasi da baina une oso laburra izan da. Egiten nuen mugimendu bakoitzean arreta jartzen zuten haiek ere egiteko.

### **3.3.Ikasleen arteko harremanak.**

Ikasleen artean orokorrean harreman onak egoten dira. Neskak taldeak egin behar direnean ahal den neurrian batera jartzen dira. Bikoteak egiterakoan 4 neska batera jarri dira eta bostgarrena mutil batekin jarri behar izan da baina ez da arazorik egon (bikoteak haien kabuz aukeratu dituzte).

### **3.4. Rolak**

## **4.Sentipenak**

### **4.1.Kezkak eta zalantzak**

Eguraldiaren arabera txartelak aldatu behar banituen azken momentuan edo mantenduko zen eguraldia eta aurreko eguneko berdina erabili ahal izango nituen.

### **4.2. Beldurrak**

### **4.3. Erronkak**

Ikasle guztien parte hartzea bermatzea.

Lehiakortasuna ez izatea gaurko saioaren oinarritzat.

### **4.4.Hausnarketak**

Ikasleak gai dira erronken bitartez ikasteko eta oso metodo egokia dela ikasketa esanguratsu bat gerta dadin.

Modu praktikoa batean ikasten dena askoz gehiago barneratzen da. Zure eskuekin edo zure kontura egiten ez duzuna, hau da, teoriaman ematen dena askotan gero ez gara gai aurrera eramateko modu erreala batean. Modu praktikoa ikastea, aldiz, memorizatu eta egiteko prestatzen gara.

Modu praktikoa ikasleek arreta mantentzea errezagoa da eta gehiago disfrutatzen dute, horretaz gain parte hartzea askoz handiagoa da.

## **5.Inzidente kritikoak**

### **5.1. Gertaerak**

Jantokiaren kanpoaldean itsatsi dut gaur erronka bat (Covid egoera dela eta jantokian ezin zelako sartu) eta eguraldi ona zela eta txikiak kalera atera dira eta txarte horiek hartu dituzte.

Nire ikasleak umeak txartelekin ikusi dituzte eta haiengana joan dira eskatzera jolasaren parte zirelako.

### **5.2. Hartutako erabakiak**

Bikoitiak ez zirenez irakaslea bolondres jarri da parte hartzeko, gainera kontuan izan du ikasle batek kontaktuarekin arazoak dituela eta pixkanaka lantzen ari dela. Gaurko prestatuta zegoen saioa kontaktu asko dagoenez irakaslea ikasle horrekin jarri egin da pixkanaka lantzen ari delako berarekin.